


**JAKIN**

**10 URTE**



# AURKIBIDEA

5 aldiz urtean .....	JAHIN .....	1
sozialista ala demokrata? .....	jaxinto etxeberria .....	5
komunismoa 50 urtez gero .....	jose ramon beloki .....	11
eugène ioneko eta .....	joan mari torrealday ...	18
burgeskeriaren eskandalua .....	joseba andoni etxabe ...	23
quo vadis, emakume? .....	j. j. olaberria .....	32
"paysan de la garonne" .....	r. irizar .....	40
gernika-ko kanposantua .....	mari martija-j. azurmendi	47
fededun eta fedetzaille .....	manex erdozaincy .....	52
"axmutil" jaunari .....	aldapeko .....	60

## SALNEURRIA

urtekoa: 100 pezta.

alea: 25 pezta.

---

# **jakin**

— 23'gna. Arantzazu'n — 1966 —

zuzendari:  
**kandido zubizarreta**

zuzenbidea:  
**arantzazu—oñate**

EUSKAL GAZTERIA  
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea.

---

**herriaren izpiritu ta  
kulturaren alde**



"JAKIN"

5 aldiz

URTEAN

---

amesa errealidade

---

*"Amesak ames dire"... Baiña ez beti.*

*JAKIN-ek ames asko egin du. Hasiera batean, haurraren amesak, zillarrezkoak, txokolatezkoak... Umeak gizonak baiño ames gehiago eta merkeago egin izan du. Horregaitik nunbait, umearen amesa eta ahuntzaren gaberdiko eztula, ez ditu iñork ziñez hartzen.*

*JAKIN-ek, ordea, pasa du haurtzaroa. Eta, haurtzaroarekin, "gorria", azkure ta negar, haur guztiak bezela. Ta, orain, JAKIN-en amesak —gizonaren amesak serio hartu behar dira beti— ba du*

*euskaldunontzat, Euskal Herria egiazki ikusten duten oroentzat —denetik baidago—, seriotasunik eta garrantziarik.*

*JAKIN urtean BOST BIDER agertuko da aurre-rakoan. Ez da amesa, errealdade baizik.*

*JAKIN, ba dakizute, juxtu juxtuan bizi izan da gaurdaiño. Urteko hiru ale, bata bestearekin zerikusi haundirik gabe, eta kito. Bizi giñala adierazteko lain, hortxe nunbait.*

*Orain, urtean bost zenbakiekin —eskuan daukazu-naren antzekoak—, bixitasunean eta gaurkotasu-nean irabaziko du gure aldizkariak. Ta Euskal Herriak ezagutu ahal izango du aspaldi amestu zuen euskal kulturazko agerkaria, gure herriaren pulstua barnetik neurtuko duena. Euskal gazteriaren errebista, hain zuzen. Izan ere ordua da, gazteriaren iritzia ta lana prejuiziorik gabe hartu ditzan gure herriak. Ostera, biharkoa galdua dugu sekulako...*

*Zenbakiak ugaritze honek ba dakarzki bere lanak. Alegia, horretarako, hasteko behintzat, artikulo "reserva" on bat beharko genduke. Hau dela-ta, dei berezi bat egin beharrea aurkitzen gera, aspaldian mutu xamar dauzkagun Euskal Herriko beste gure adiskide apaizgai eta praillegaieri.*

---

## NUNDIK NORA?

---

**Nundik nora dabil JAKIN? Zein xede ta asmo ditu berekiko? Zenbaki hau lehenengoz eskuratuko dutenak nola dexente diren, zillegi bekigu, bi hitzetan bederen, JAKIN mogimenduaren oifiarriak eta xedeak hemen finkatzea.**

**JAKIN-en xede nagusia euskerari eta Euskal Herriari laguntzea da, euskerazko kultura gorpuzten (ez baita herririk hizkuntzarik gabe). Bidezko da Euskal**

Herrian edozein kultura gai euskeraz ematea, beste Europa-ko eta munduko edozein erresumetan bezela.

Ba diteke irakurleak gai batzuk astun eta gordin aurkitzea. Ba dakigu: ez dago euskal tradiziozko horrietaz idazteko. Gaiñera, ez gera "espezialista" sartu, kontuan eduki.

Euskera gihartsua nahi dugu, baiña euskera xede egin gabe, ta bai euskal kultura. Horregaitik, "berrikeria" batzuk barkatu beharrekoak ikusten ditugu, ez baigera denok euskal hizkuntzalari edo linguistak, Jau-nari eskerrak... Euskal kultura mailla aurkitzen dan egoeran, gure setari milla aldiz bidezkoago derizkiogu, euskal hizkuntzalariek oraindik "tzaz" eta beste zenbait arinkerietan dabilzan bitartean.

Euskal ikasleok —unibersitario, militante, apaizgai, praillegai, tabar— gartsuki erantzun behar diogu gaurkoz JAKIN-ek, ez bestek, egiten duan euskal kultura intelektuala urratze lanbide honi.

Komeni da ta saiatuko gera, ahal dan neurrian noski, azterketak egiten: batez ere, soziologiazkoak, literatura, erlijioa, ekonomia, politika, Herriaren egoera, tabar, beti alderdikierietaz kanpo gizonaren osotasunari begiratzen diogula.

JAKIN-en idazten dutenek, ez dute ahaztu behar ifioiz, San Martin jaunak behingo batean horri haue-tantxe ziona: "ERRIA IDAZLEAKIN JOANGO BADA, IDAZLEAK ERRIRA BEGIRATU BEHAR DU" (ikus JAKIN, 17-gna., 33 horr.).

---

## ELKAR-HIZKETA

---

*JAKIN ez da mogimendu itxia. Ez dira egunak dogmakeritan ibiltzeko. Maite dugu elkar-hizketa egiatia eta errespetozkoa.*

*Eta gure herrian beharrezko dugu aspaldida-*

*nik falta zaigun elkar-hizketa hori. Zaharren eta gazteen artean. Eta elkar-hizketa gazteen artean, zatiturik baigaude...*

*Ba dakigu esaera: "Bere buruaren kontra zatituta dagoen erreinua ondatu egingo da". Hala gertatu da beti, hala gertatu zaigu, eta gertatuko ere bakoitza berea egiñaz jarraitzen badugu. Erdibitu, zatitu, onak txaharretatik berezi... hori izan da beti etsaiaren lana. Zerutik hasita! Ta bai ongi asmatu gurekin. Azkenean gertatzen zaigu, ez dakigula nor dugun etsai eta nor adiskide.*

*JAKIN-en ez dugu sesiorik nahi, baiña bai elkar-hizketa. Ez diogu iñori aterik itxitzen gure herriari buruzko eztabaida honetan.*

*"Au da biderik zailena ta arantzaz josia, baiña benetakoa. Posible ote da?"*

*Hala espero dugu, Rikardo.*

JAKIN.



# SOZIALISTA

# ala

# DEMOKRATA?

**jaxinto etxeberrria**

Gizon gehienok aztertu oi dugu, zorrotz eta bizi-bizi jeneralki, gere buruaren oraingoa eta gerokoa. Hurrunago: nazioek, azken geratea ezker behintzat, kezkatan dire nolaz eta nondik osatuko heuren destinoa ta betebeharra. Kosmos-ek berak ere, osotasun eta batasun kontzientzia bereganatzen hasi denetik, seriooki jorratu nahi luke gizarte zibilizatuaren bizimoldea.

Gauzak hunela, ba dirudi sistema sozial-politiku bitan aurkitu litekeala aukerabide bakarra. Mosku-tik honuntz eta haruntz sozialismua duzu jabe. Europa-k, aldiz, demokrazia du urrezko eraztun bezala; hontara ase ditzakeala derizkio gizonaren xede sustraiezkoe-nak. Panorama hau begien aurrean dudala, galdera bat eginen diot



nik nere buruari; bi sistema egitan: printzipio (oifarrri esaten da) desberdin eta elkartu ezinezkoak, hortaz? Baliteke.

Ostera, bata eta bestearen barnea aztertzean, susmatu-edo egiten dut, nekez bada ere, taupada bakarra dela ideologi bien bihotzean jokatzen duena. Zein taupada? Sozialdemokraziak bi sistemaen elkar-tze bidez erakusten duena baharbada? Ifiolaz ere. Zeren, partidu huntan, sozialismuak baidarama printzipiorik sakonena: ots, gizar-teak hainbat eginbide edo politika aldakor ondoren, sozial-forma huntan arkituko duela bere azken jomuga; gizon oroen batasuna ta berdintasuna lortuko duten neurrian direla ballodun gaiñerantzeko jokabideak. Oraindik orain demokraziak omen dirudi denetan apro-posena munduaren egungo larrimifia ta ezin geldia soluzionatzeko. Beraz, ez datozte bat nere afirmazioa ta sozialdemokrazia.

Sarritan gertatu zaigunez, gere begien aurreko errealdadeekin txoraturik, berehala baztertu ditugu besteek erabillitako pentsaerak. Bata bestearentzat lillura, absurdu edo zerbait txaharrago gerade jeneralki, Sartre-ren esanez. Sozialismua eta demokrazia, nahiz-ta halako denboraldietan printzipio ta jokaera desberdinekin presenta, konzepzio ta pentsakera berdineko dire funtsean, ene iritiz. Heuren arteko diferentzia zeran logeke: bata, lehenengoa, Orientearen siko-loji ta sozial egokerari egokitu zaion bitartean, Okzidentearen espiri-tuari —bai ote du?— erori zaioa egokien bigarrenkoa. Beraz, gizona teknikaren jabe gertatu denetik, errex garaitu dire herriaren ase-nahi ta behartasunak. Bost ajola ez ote zaio politiku eta pentsalariari ideia hunen edo haren egia munduaren bereganatzea denean bide?

Demokraziak, esate baterako, bere pentsa moldearekin primerako opioa eskeifiri dio Okzidenteari, hunen gainbera eta uste aundia elkar joka dauden ordu kritikoa. Gizartearen alienazioetan —ba dire alie-nazioak orratio—, puntu berezi batean arkitzen da Okzidentea. Esango nuke, lehen gizon bakoitzaren alienazio zena guztiekikoa izatera heldu dela orain: gizataldearen alienazioa hain zuzen, Europa ta Amerike-tako nazioetan jende gehienek beren iritzia betearazteko gai ba direla uste duten ezkeru.

Alde baten eta bestearen egokera hau dela ikustean, huts egin-goaren bildurrik gabe, esan dezakegu, bin-betan, sozialismu ta de-mokrazian, "ideiak" determinatzen duela errealdadea. Esplika nadin: gizon batek sortutako Ideia edo Ikus-moldea jarraitu beharra dauka nahi ta nahiez kondairak, eta idei hunen serbitzuan arkitu beharko beren azken sentidua toki eta garai guzietako gertaerak. Sortuak li-rake superhombre batzuk izadiaren eta gizadiaren eboluzioan, Nietzs-

che-ren esanez. Eta hauek, kondairaren eta gizadiaren supraestruktura eta infraestrukturaz oharturik, nondik norako bidea daramakigu seiñalatu digute. Zein bide, zein azken?

Demokraziaren igarleen arabera denok daramakigu barnean superhombre izateko indar dinamikua, eta egundantetik aurrera herriaren boza ta hitza hutsezifiekkoa bezela jo dezakegu. Sozialistek diotenez, helduko gera aldi horretara, baiña sistema politiku eta diktadura batzuk pasa ondoren. Bien mamian, gizonak kondairaz ikuspegi oker ezifia dueneko afirmazioa jokatzen da. Era huntara, zirkunstantzi guztiak —gerrate, reboluzio, asmakizunak—, Idei edo ikuspen hortan hurtutzero dijoaz halabeharrez. Marx-ek, Hegel-en eboluzio dotrifia jarraituz, eta haren Ideia Nagusia materializaturik, giza klaseen izkutatzea ta gizon oroekiko paradisua jo zuen errealdade guzien jomugatzat. Rousseau-k, demokraziaren aurrelari harek, gizonaren jatorriz on izatea ipifil zuen egi guzien buru. "Utzi pakean gizonari, instintoak azken-bete dezake-ta", zion.

Denetara, hemen eta han, ideia nagusi. Ez dut ukatuko —nolaz ukatuko ere—, kondairaren zehar, ideiak eta egintzak elkarri eragiten diotena. Kosmos-en egilleen artean beti aldatu bide dira ekintza-gizonak eta pentsalariak. Halabaiña, zeren atzetik dijoa intelektuala? Egia edo egiaren egarria da egiazko intelektualaren helburu bakarra; gizonak nahastuta dauzkan errealdadeekin zerikusirik ba duen egia, alegia. Logika bidez borobildutako afirmazioak egi bihurtuko badire, suertatu zaigun denboraldiko sikologiarekin derrigorrez kontu hartu beharko dute. Errealdadea une batetik bestera berbizten den ezkerro, ara non geldituko garaiz aurreko igarleen hitzak. "Tsmu" oro izaki askoen ukatzea da, nagusitza guzia bere gain jasotzean iraunkortasuna kentzen baidie Bera-ez gaiterakoei. Hunela sozialismua, marxismua ta kapitalismua; demokraziaren guraso ta sortzaille azkeneko hau. Olamuzko hamaika absolutu ezagutu ditu kondairak. Behin ezagutu!

Uste osokoak gerade gizonok eta jakite osoaren lortu nahia dugu gure barne-muifia, Hegel-ekin bagatoz. Kontradizioa, beraz: irixteko irrikitzen batetik, ase ezifnik bestetik. Lehen esan hala, ideia zaleen artean beti jokatuko da kontradizio hau. Errugabea dela gizona, dio absolutuki demokraziak. Kosmos-en jabe absolutu den gizonak haren azkena sumatu duela eta ba dakigula nondik norakotu gizartearen martxa, bigarrenak. Han eta hemen, ez da ageri gizonaren neurritasuna ta pekatu orijinala, ifundik ere. Eta, noski, neurritasunetik darion oro, ideiak esate baterako, neurridun direnik. Ba zuen arra-

zoi Hegel-ek, alajaña: bai, ikusten duela ikusi gizonak Absolutua urruti hartan, baiña joku eta garaipen orduan lurreko edozein izaki billakutzen dela. Marx eta sozialistak nolabait ere garaitu nahiaz jardun izan dire irriki dugun eta ahal dezakegunaren arteko saltoa, Ideiaren ordeko Materia jarriaz Absolututzat; horregaitik, materia geranez, Maiuskulazko horretan arkitu dezakegu guk gure azken betetzea. Lehen Ideian bezala, orain Materian hurtutzen dire izaki guztiak. Guretako bakoitzak, berriz, lagundu dezaigun kondairaren dialektikari, egungo zirkunstantziak Azken horretara bultzaka.

Marx-en proposizioak ikusgarriak zitzaizkion XIX-gn. mendeari, aproposak esklabutzan amilduta zegoen langille jendeari. Izan ere, illunpetan dagoanak argi printza ikusi orduko, berehala hartaritzen ditu begiak. Orienteak on-hartu du berebiziki sozialismua: eta haren barna, bihotz zabal eta barne-gose izugarriko herriek gehienbat. Sozialismuak, nahiz-eta bakoitzaren aspirazio sakon hoiak ukatu, itxuraz soluzio esperantzagarrria presentatzen baidu kolektibismo mitoarekin.

Jokaera oso bestea Okzidentearena: konturatzen da zein printzipio diren baliozkoenak; horregaitik ematen digu ba eskandalu gorria zenbait egiteetan. Buru argikoa da egia ikusteko, aula ordea materiaren eta espirituaren jokabide desberdina aurrez-aurre presentatzen zaizkionean. Lehenbizikoaren alde jokatu beharra beti! Okzidentearen xehetasunak elkartu ditzake "oiñarrizko giza-eskubideak" eta Vietnam-go bonbardaketak. Frantziako matxinadaren antzera, gutxi gora-behera. Sozialismua bera ere kapitalismuaren ondorio besterik ez da. Okzidentearen frakasoak ikustean, sozialismu mitoan arkitu nahi izan du Orienteak Absolutu-gosearen aterpea. Gu baiño egi zaleagok hauek, naiz-ta hutsean; praktikuagoak eta aprobetxatiagoak gu: hori bai, egia soñean dugularik beti.

Demokraziaren optimismuari gagozkiola, ba nago huntan: "numerasunean" ager arazi duela honek gizonarekiko uste on berezia. Herriaren adierazpena dugu bere printzipiorik lehenbizikoena. Nolanahi, manifesta dedilla herria. Ez dio ajolk zeren izenean mintzatu den herria. Bestela balitz, herriak darabillan beste printzipio hori jarri behar izango bailuke printzipio haren gaitetik. Horregaitik, bost ajola zaizkio demokraziari "egia" ta "ona". Fede galdutako populua teknikak atzapartu duenean, ezagutu du arrerik onena demokraziak. Hain zuzen ere, bere teknikaren ardatza teknika batean datza: nork boto gehiago bildu. Nekez legoke minori baten eskuetan

egia. Ez da ezer gizonaren gaitetik eta denak berdifikak dire. Funtsean, gizartearen espirituzko oinarrien ukoa ikusten da mintzaera huntan.

Zer esanik ez, izigarri ari dela luzatzen teknikaren indarra. Bide batez, herri-kultura, jakinduria, bizigiroen elkarrekiko hartuemana. Okzidentean, gerratearen ondorioetatik sendatuta, asti gehiago dauka orain politikari ekiteko. Egokera hau dela-ta, zera diote sozialista ta demokratak, gizonaren eta gizartearen neurri gabeko aundi izatea justifikatuaz: Lehen baiño libreago da gizona, teknikaren garaipen gehiago du ifundik ere. Askatasuna lanbide edo jokagai aundiagotzat hartzen bada, bai noski. Kontuz, halabaiña: nork bere baitan egin dezakean aukera onenari deitzen zaio benetazko askatasuna. Haunitz errealdade berri sortzen ari gera eta gero ta ikusgarriago ikusten dugu inguruko mundua. Errealdade hauek erabiltzeko ente abstraktoak bagifia gizonok, ez legoke problemarik. Ez gaitezen lilluratu. Hauxe da egi garratza: aukera-gai ikusgarri hoiekin aurrez aurre jartzten den gizonak hiri-buruetako anonimatoa, erlatibutasunaren pixua eta bizi-larrimifia daramazkiala sorbaldan.

Sozialismuak geroago eta demokraziak oraindantik kantatzen duten askatasun osoak Cabet sozialista utopikoak zioena bururatzen dit: sozialismu aroan egunkari bakarria argitaratuko zela, gobiernuarena hain zuzen; edo-ta, Tomas Moro-k imajinatzen duen bezala, toki batetik bestera aldatzeko baimena beharra izango den aldi hura. Izaki oso-osotuaren berebiziko da gauzetan onena aukeratzekoa beti; horra, bada, Cabet-en egunkaria akatsik gabe eta herriari ahal lezaiokeen egokienik. Neurriduna pronuntziatzen da nunbait, jo-ta-ke, libertade eske. Sail hontan, askozaz asmatuagoa deritzait sozialismuaren azken urteetako jokaera demokraziarena baiño. Ongi konprenitu du harek pekatu kutsua duguneko egi zorrotza. Ez da demokraziaren egi mekanikoetan erori.

Hona emen pentsagai batzuk —illun ote?— mundu hobe bat jaso nahi dutenentzat. Ezin ahaztu ditzakegu kondairak aldika eza-gutu dituen asmakizunak. Marx-ek alienazioaren gain esandakoak batez ere. Pentsatu al dugu behar haifia gizonak gizon den bitartean hain bereko duen askatasunaren batabesterakotasunean?

Zer diote, azkenik, egungo gogolariek Okzidentean gainberari begira edo komunismoaren krisisa gordifia sumatzen dela?

Ene iritziz, ba dabil mogimendu esperantzagarririk munduaren barna. Bai, zalantzan dago gizona eta nork bere buruz etsitze honek gizartearen martxan gere tokia okupatzera gonbidatzen gaitu. Gaurko auziaz interesatzen da egungo gizasemea. Eskuratzen zaizkion zir-

kunstantzietekin nahi luke jaso bere eta munduaren izakera. Existentialismuak ere pertsonagan jaulki ditu bere ongi<sup>o</sup>uste sendoenak eta, horregaitik, ez da ajolakabe gizartearekiko, bata bestearen beharreen gerana ikusten duela. Dinamika huntan ezin diteke beti ontzat hartu herriaren esana edo kapitalismuaren irabazietekin esku-artu, alienatzeko ifoiz baiño arrisku bildurgarriagoan balgera hortaz.

Gure soziedade hau bizi-bizituzteko, Ideien edo lortu beharreko jomugen esklabo bihurtu beharreen, har dezagun seriozki mundua bere zirkunstantzietekin, barneko espirituak adieraziko digun erara berriztuzteko.

A priori-zko dogmak ez datozte ongi zibilizazio honen izakerarekin. Gizarteak irriki duen edukazioa apunta behar lukete lehenengo ekonomikak eta politikak. Gizonok, gizarte honetaz batasun benetazkoa egiten alegintzen bagera, orduan bai arrazoiak espero dezakegula Hegel-ek eta Theylard-ek irriki zuten kosmos-en erabetetzea.

# KOMUNISMOA

## 50

### urtez gero

jose ramon beloki

Aldia, esan oi da, epaillerik zuhurrena. Urteak zehar, gauzak eta arazoak garbitu ta argian jarriaz joan oi dira. Honela, nahaspillik aldrebesenak ere izan oi dute bere argi sasoia. Berrogeitamar urte geroago, edozein errealdadeen arpegiak antzaldatu-edo egiten dira, beste itxura bat agertzen dute.

Hauxe bera gertatu zaio komunismoari. Berrogeitamar urte geroz (1917-1967), ezin esan gauzak berean dirautenik. Eritzi asko ta asko dira aldatu direnak. Apika, komunismoa bera ere aldatuz aldatuz dijoa zenbait lekuetan. Horregaitik, hona hemen nere galdera: zer dio, zer uste ta itxaro du egun Errusi-ko herriak komunismotik?

Gaian sartu aurretik, ordea, argiketa bat egin dezadan. Komunismoa sozialismoarengandik bereiztu arren, hemen berdithean darabilzkit. Izan ere, **Doktor Zivago**-k esaten duenez, "galdu egiten da bat sozialismoaren doinu guztiak bereizterakoan eta, gainera, ez da hain alde bereizirik nabaitzen boltxebike ta beste sozialisten artean" (1). Ezin gindezke orain argibide zehatzagorik ematen gelditu. Bakarrik esan dezagun, izatez ta gertatzez, Errusi-n ez zirela bereiztu: sozialismoa komunista izandu zen beti.

Errusotar komunismoaren erreboluzioari buruz Errusi-ko herriak pentsatzen duana jakiteko, guztiz egokia derizkiot Boris Pasternak-en **Doktor Zivago** eleberruari. Eleberria den ezker, ez du historiari- egiten. Halere, ezin diteke esan edestiatik urrun edo at dabillenenik. Bai zera. Historiaren muina adierazteko edozein histori-liburu baiño apro- posago derizkiot. Ba, historiaren muina gizonak osatzen dute, eta ez historia liburu batek konta dezaizkigukuen gertaerak. Gertaerak gain- girozkoak ditugu eta beren balioa, ekin diogun lan honetarako behin- tzat, muinaren adierazpide diren neurrian dago. Bestela berriz, Doktor Zivago-ren irizpideen sendo ta irmogarri bezela, beste zenbait aburu ere honera ekartzen salatuko naiz, burugabekerizko jokutzat inork salatu ez dezaidan idazlantxo hau. Beste gaberik, goazen arira.

### **Indarkeria**

"Guztia odol itxasope batean geldituko da blai (...) Odol itxaso hau erreboluzioa izanen da" (2), esaten du Chura Schlesinger erre- boluzio zaleak. Eta hala gertatu zen.

Erreboluzioak duen arpegirik gogorren eta gogaigarrienetakoa an- kerkeria ta odol ixurtzea dugu. Erreboluzioak ta bere ondorenak orobat eruz baiño ere erruzago ixuri zuten odola Errusi-ko lurraldeetan. Lenin-ek eta Stalin-ek ez zuten gizona maite. Nahiz gizonaren eta gizon pobreaken alde erreboluzioa hasi, ez zuten uste gizonengandik ezer espero zitekeanik. Beraientzat proletargoa ez ziran Errusi-ko herria osatzen zuten gizon arrunt haiek, baizikan proletargoaren ideia aragitzen zuten gutxitxo batzuek, eta, batez ere, agintaritza osatzen zutenak. Horregaitik, inportanteena, gizon bakan hauek eutsitzea zen, agintaritza irmo mantentzea. Beste gizonak ez zuten ardura gehiegirik.

Txundituta gelditzen da bat Doktor Zivago-n azaltzen diren hain- beste gogorkeriek. Esan diteke, erreboluzioa erreboluzioagaitik egiten ari zirela, odol ixurtzea odol ixurtzeagaitik, eta ez, berak ziotenez, etorkizun hobea ta gizon zorionsu batengaitik. Ekarki dezagun

honuntz eredutzat Pamfil Palykh pertsonajea. ...“propaganda txin-  
tik gabe ere ikaragarritzko amorru zoro bat sentitzen zuen intelektual,  
jauntxo eta ofizialekiko”. Guk esango gendukeanez, erabateko asta-  
kirtena zen, pizti amorratu bat. Ba, komunisteri, bere “gizatasun eza,  
norbere maillakoekiko kontzientzi nabarmen eta oso aparteko bat iru-  
ditzten zitzairen; bere ankerkeria, proletargoaren barne-indarraren eredu  
eta erreboluziorako sen berezi baten ejenplu”. Kapitain eta aintzind-  
darien oro errespetu zioten, bere tasun hauek bideko. Ikus 401-gn. horr.

Bestaldez, berriz, komunistek berak ez dituzte ukatzen garai har-  
tako krudelkeriak. URSS-ko komunisten 22-gn. billeran erabillitako  
gaietan, batek honela zion: Pertsonalitatearen gurtzapen aroan egifi-  
kako krimen guztiak ez dira berriz gertatuko (3). Areago, gaurko  
Errusi-ko komunistek ez dizkiote barkatu Stalin-i bere basakeriak eta,  
horregaitik, benetan adieragarri haxe, “desestalinizatzen” hasi dire  
agintaritzak beraren babes ta eragipenean. Parentesi artean, hau litza-  
ke momentua beste galdera bihurri bat jaulkitzeko: “desestalinizazio”  
honek ez ote du esan nahi Errusia liberalizatzen dijoela, komunismoa  
lehengo bere garbitasun hura galtzen, eta ia benetako komunismoa  
gaur egun Txinakoa ez ote dugun, eta ez errusoa...

Bai, ene iritzira ezin diteke ukatu aspaldiko indarkeri ta gogorkeri  
haiek zenbait arazoetan aldeniduz dijoazela. Honela dio Bernard Fé-  
ron-ek, eta arrazoi duelakoan nago (4). Hori bai, era honetako baie-  
zen bat ongi mugatu beharra dago, Féron berak dionez. Oraindik  
orain totalitarismoa da Errusi-ko gaitzik okerrenea eta beste gaitz  
oroen iturburu (5). Sustraiean erreboluzio garaiko gaitz berdifiak di-  
raute. Libertadearen izenean, gizonak lotuago uzten dituzte (ikus  
Doktor Zivago, 390-gn. horr.) “Ostiko bat ematen didate eta zuk  
diozunez nere onerako egiten. Ez, zoratzeko ere ba da hau” (D. Z.,  
64-gn. horr.). Estadu gogor baten menpean ez-ezik, askozaz ere oke-  
rrago den “super-estado” baten menpera eraman dituzte (D. Z.  
257 horr.).

Horregaitik, errusotar herriak ezin du etsi komunismoaren men-  
pean. Gaurko gazteak ez dute deusik konprenitzen. “Nere aitak —dio  
gazte batek— ba zekizkian Stalin-en bidegabekeriak oro. Hala ere,  
heriotz aurretik, partidurako kandidatura presentatu zuen. Nik ezin  
dut hau ulertu ta ezin dezaioke barkatu”. Eta geroxeago: “Jende  
asko daukat inguruan ikaragarri sofritu duena. Gazteek uste dute bere  
gurasoak aberetuak zeudela hainbestekoak pairatzerakoan. Ixil gel-



ditu dira neurrigabekeri oroek ikusita. Zeren izenean? Absolutuaren izenean" (6).

Ta honekin beste puntu batera heldutzen gera.

### erlijiotasuna

Mme Jeannette Vermeersch-ek: "Gaur ospatu dugu Aszentsio edo Igokunde eguna". Hitz hauek Gagarin astronautaren goi-ibilleraren ondoren esanak dira.

Komunismoa ongien konprenitzeko erlijio mogimendu bat bezela begiratzea da. Bestela, ene iritzian, ezin ditekete deus ulertu. Bakarrik erlijioak askatu ditzazke komunismoaren kontradiziozko korapilloak. "Ez dira dutenarekin konformatzen: nahi lukete, gutxienez, lurbira osoaren neurriko ta maillako den zerbait. Mundu berriaren eraikitzeak eta aroen igaro beharrak xede-leku dute beraiengan" (D. Z., 341-gn. horr.). Doktor Zivago berak komunisteri erantsitzen dien mistizismo kutsuak ez du besterik esan nahi. Erreboluzioaren intelektualek erreboluzioa erlijio egin zuten. Ta erlijioak beste oroen sakrifizioa eskatzen du: edo ni edo besteak.

Hemendixetik datorkio komunismoari bere haunditasuna. Honela konprenitzen da gizonak libre egitearren gizonak berak ukatzerailho iristea. Kultura, artea, zibilizazio guztia, serbitzari leial bezela portatzen ez badira, komunismo-erlijioaren aldare aurrean sakrifikatzen prest egotea. Beste erlijio guztiak desegiten alegintzea...

Bere erlijiotasuna kendu orduko, komunismoa sistema ekonomiku ta politiku huts billakatzen da, bere absolutismoa galduaz, Europa-ko sozialismoen antzera. Beraz, komunismoari berean eusteko, berriro esan dezagun, absolutista behar du izan, Txina-koaren arabera. Agintaritzak eskubide guztien jabe izan behar du, txoko guztietan agindu behar. Ta, hontarako, indartsu izan. Horregaitik, batez ere militarrek aginduko dute. Xabier Mendiguren-en hitz-moldeak artuaz, "politikotasunaren" menpean erori behar du sozialismo komunistak. Eta honela, Mao Tsetoung-en alboan Ling Piao-k egon behar. GPU izango da laguntzarik egokiena komunismoa ezartzeko. Ta Stalin izkututzen danean, Beria, poliziaren buru izana, hillik aurkitua izango da bere etxean.

Halaz ere, ezin ukatu gogortasun guzti hauen artean, erlijio dan ezkerero, zerbait haundi ba duela. Bakarrik, oker bidetik dijoan haunditasuna izatea.

Baita ere, ordea, erlijio izateak halako xinpletasun bat ematen dio komunismoari, umekeri antzeko zerbait. Alde hau argitzeko, kontu artu besterik ez daukagu Gagarin-en ibillera ondoren esan ziren hainbeste hitz xinglez. Garai bateko materialismoaren antzera, gorputza erdibitzerakoan animarik ez zutela aurkitu eta itxaso berri batekin topo egin bazuten bezela, animaren eza aldarrikatzen hasten dira, konturatu barik, deskuidoaz animarekin eman izan balute, orduan bakarrrik deadar egin zezaketela animaren hutsa, ta ez bitartean. Horixe bera gertatu zaie Gagarin-en igoeran Jaungoikoa ez arkitzearekin. Puntu honetan bertan ekarri genitzake baita ere beste zenbait adieragarri: esate baterako Biblia nolaz esplikatzen duten (7), jakintza zientifikoa nola erlijioaren alperrikakoa ta ezifa adierazten dijoan(8), tabar.

Jakina, erlijioaren barruan dagoenarentzat, dogmakeri utsetik bizi denarentzat, gauza hauek guztiak ez dira inolaz ere umekeriak. Aitzitik, benetako zio pixugarri dira, ondoren artuko diran jokaera guztien nundik-norakoaren erabakitzailleak.

Erlijiotasun hau galtzen hasi orduko, berriz, geroz ta nabarmenago ikusten da guzi hioen "umekeria". Hain zuzen Erruso-tar herriari horixe gertatu zaio. Khristina umearen jokaeran errepresentatuak bezela arkitzen dira komunistak, Doktor Zivago-rentzat. Injustiziaren kontra komunismoak arturiko jokaerak Khristina umearenarekin ba du zer ikusirik franko (D. Z., 350-551 horr.). "Geroaren egun sentia, mundu berri baten jaiotza, gizartearen argi emaillea. Hauek entzutera-koan, zera bururatzen zaigu aurren-arrenez: hau irudimena! Ordea, hitz lodi hauek maizegi entzuten badira, talentu ezagaitik da izan" (D. Z., 328-gn. horr.). "Ba dakizu nundik datorren oro aldatu beharren ezin egon hau? Ezer konkretorako gauza ez izatetik, talentu faltatik" (D. Z., 341-gn. horr.). Umearen jokaera lez, griñaren eragipe-nez artuago da buru argitsuz baiño. Horregaitik, arrazoiz galdetu gindezke ia komunistak borondate onez ote dabiltzan, benetan, Gorki-ren Pablo harek zionez egia maite ahal duten. Doktor Zivago borondate ona ukatzeraiño joango da: "Edozer gauza asmatzen dute egia gibelatzearren. Politika zearo arbuiatzen dut. Ez zaizkit gogoko egia maite ez duten gizonak" (D. Z., 296-gn. horr.).

### geroaren itzaropena

"Nik nahi dudana da bizi, bizi. Bihar ez, gaur". Mosku-ko teatro batean jendetaldeak txalotutako hitzak.

URSS-ko komunisten 22-gn. billerak deklaratu zuanez, 1980-rako komunista gizartea osaturik geldituko da.

Beti dute komunistek guzien esplikaziorako iges bide bat: geroaren promesa. Horixe dute beren erlijioaren ideia ardatzenetako bat. Ta erlijioa dan ezkerro, ez dago arrazoirik bere egon tokitik bota dezakeanik. Arrazoi guztiak kanpotik gelditzen dira, ez dute mamia unkitzen. Beraz, ez dute balio. Komunismoaren bortxazkeriak, bere kontradizioak, bidegabekeriak eta... ez diote deus esaten komunista bateri sistemaren aurka. Gehienik ere gizonak epaitu ditzakete. D. Z.-k dionez, "bi hitz-molde diferente dira. Ez dago elkar arkitzerik era honetako eztabaida batean" (D. Z., 299-gn. horr.).

Errusi-n, ordea, komunismoa erlijioa izateari uzten dijoa. Gaurko gazterlarentzat, lehen ikusi dugunez, "xedeak ez ditu bideak oro zillegitzen" (D. Z., 389-gn. horr.). Biharko bizitzak ez die hainbeste ajolik, gaurkoak baiñio. Eta "ez dute uste bortxaren bidez deus erdietsiren denik. Ostera, onak onaren bidez erdietsi behar du" (D. Z., 299-gn. horr.). Horregaitik, iruditzen zaie, komunistek "inportanteena ahaztu dutela: ots, ezin ditekeala bortxaz maitatu ta oker jokatu dutela gogo ez zutenak ere askatzerakoan ta zorionik nahi ez zutenak ere zoriontsu egiterakoan" (D. Z., 390-gn. horr.).

.....

Komunismoa erlijio bezela, desagertzera epaitua dago. Ba, berarengan inportanteenak ez du aldaketarik ametitzen. Bere aldaketak ekonomi ta politika sailletik ez dira pasatzen. Eta honela, funtsean berdin dirau. Arik eta berak aldarrikatutako dialektikaren bidez beste batek bazterreratu dezan artean. Apika, ez zala arrazoirik falta Vdovitchenko-ri: "Ez makurtu, Bonifatsi! —esaten dio berarekin hiltzera dijoan lagun bati. Zure hitzak ez diete hoieri deus esaten. **Opritchniki** berri hauek, molde berriko gizerailleok, ez zaituzte konprenituko. Zuk ez galdu adorerik. Jakingo du edestiak oro garbitzen. Jakingo du geroak komisariopel hontako agintaritzar ta beren egia ustela lotsakizun abean josten. Martiri bezela hiltzera goaz gure ideien alde, erreboluzio mundial baten egun sentian. Gora espirituaren erreboluzioa! Gora ludi osoan anarkia!" (D. Z., 411-gn. horr.).

Berriro ere, bada, kondaira epaillerik zuhurrena...

OHARRAK:

- (1) Boris PASTERNAK, "El Doctor Jivago", Noguer Editoriala, Barcelona-México, 1959-zazpigarren edizioa, 388-gn. horr.
- (2) Aitatu liburuan, 209-gn. horr.
- (3) Ikus "Informations catholiques internationales" (I.C.I.), 1961, 157-gn. zerbakia.
- (4) Ikus I.C.I. lehen aitaturiko zerbakia.
- (5) Ikus "Vida Nueva", 1967, 560-gn. zerbakian "La Unión Soviética cumple 50 años", Antonio Alférez.
- (6) REALITES frantses aldizkarian, 1967, 252-gn. zerbakian, "Les 18-26 ans en URSS: si peu marxistes... et si profondément slaves", 32 horr.
- (7) I.C.I., 152-gn. zerbakia, 30-gn. horr., 1961.
- (8) I.C.I., 1961, 143-gn. zerbakia, 13 horr.

————— **Juan antonio letamendia saritua** —————

"Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango"-k, Euskaltzaindiaren eta Bizkaiko Ahorro Kaxaren laguntasunarekin, "Kirikiño" ipui sariketa batera deitu zuen.

Ainbat lan aurkeztatu ziran eta juradu bat izendatu zan saria nori eman erabakitzeko: Antonio Arrue, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyen, Euskaltzaindikoak. Bil-durik, erabaki zuen lendabizikoa "**Joxe Proletario**" deritzan lanari ematea. Bere autorea, Juan Antonio Letamendia, Angiozar-ko apaiz gaztea.

Atsegiñez ikusten du JAKIN-ek bere lankidetako bat saritua. Zori onak, Letamendia!

# EUGENE IONESKO

## eta vanguardia

**Joan mari torrealday**

Rikardo Paseyro'k deitzen dionez, "vanguardiaren aita santu" dugu Eugène Ionesko. Teatrogillea da, beharbada teatro berriaren aintzindari ta asmatzaillerik ospatsuena. Ez dakit. Ionesko'k berak bai, ba daki bere teatroak munduan zehar jasotzen duan txaloa. Ta txalo hori etzaio aserre-bide. Normal da. Baiña, txalo horrek ez dio bere burua salduarazten, ez askatasuna lotarazten. Ta hau, esan dezagun, ez da hain normal.

Idazterakoan, —aitortzen du Ionesko'k— ez diot nere buruari galdetzen "vanguardia" egiten nagoan ala ez, banguardiako autore bat naizenentz. Mundua nola agertzen zaidan jakin nahi dut, nola dan mundu hori, eta propaganda-asmorik batere gabe, nere garaiki-deen kontzientzia zuzentzeko gogorik gabe, etabar, testigu bat izaten

ahalegintzen naiz, nere subjelibotasunaren barruan testigu objektibo bat. Vanguardiakoa, idazteari ekin aurretik, izan nahi, edo ez izan nahi, vanguardia bat autatu edo ukatu, kreatori batentzako gauzak atzekoz-aurrera hartzea da, arazotik at geratzea, fede txarreko izatea”.

Bere “Notes et Contre-Notes” liburuan ageri dan aitorketa hau, bere ohorez diogu.

On dala uste dut, beraz, jakitea Ionesko bezelako vanguardialdaren baten iritzia vanguardiaz. Vanguardia egitean, (rara avis), dirua irabazteagatik ez dala ari jakinda, batipait.

Hitzaldi bat egin bear zuan behin Ionesko'k, ta hain zuzen vanguardiaz. (Hitzaldi hortaz batez ere baliatzen naiz nere lanerako). Badaezpadare, eskuaren ordez anka ez sartzeko, “vanguardia” hitzak zer esanai zekarren begiratu zuan Larousse hiztegian. Orduan ikasi omen zuan, dio berak, vanguardia izena hartzen zutela “egintzarako preparatzeko, lur, itxaso edo aireko gudalozte baten aurretik doazten elementuak”. Beraz, gonbarazio bidez, arte-eremuan: aurre-estilo bat, mogimendu igerle bat, litzake vanguardia, egikera ta izakera berri batzuk iragartzen dituzten erak; goiz edo berandu guztia kanbiatzeko lain indar hartuko duan aldaketa baten konzientzi-hartzea. Eta holako. Honela, eskubidez irabazi dute idazlari igerle izena: Baudelaire batek, Kafka batek, Dostoiewski batek, Pirandello batek. Izanatik izena, noski.

Ionesko'k, gisa danez, onartzen du vanguardialdaren definizio hau, baifia ez erabat. Gogokoago zaio etendura ta aurkatasunarekin zerikusian ta har-emanetan jartzea vanguardia. Adieraziko dugu zergatik.

Eugène Ionesko'ren hitzak dira: Vanguardia askatasuna da. Askatasuna: biziki maite du Ionesko'k hitz hau, bere esangura luze-zabalean. Libertate osoa zor zaio artistari artista dan aldetik. Alegia: ertilariak, benetako kreatori izan nahi baldin badu, askatasun osoa behar du derrioren. Hor, libertaderik ez hortan, ikusten du Ionesko'k (bere eremura etorririk, teatroa alegia) teatroak gaur daraman krisisaren zergatia.

Askatasun-garantiaren jabe ezpada, ertilari bat ezin diteke artista izan, joputzar baifio. Gehienik, imitatzaile izango da, beti ariko da besteek eginikoa ber-egiten. Ta hori ez da artea.

Askatasuna ez ote dan Ionesko'ren obsesio larria galdetuko nuke. Kezka bai, bederen. Ionesko'k konzientzi aztertzen duanez, anitz lotura pean arkitzen da edozein arte-egile beti: publikoa dala, moda dala, herria dala, gizarte-giroa dala, Estadua dala, tabar. Funtsean, edozein

egitura baida lotura. Ez da, ez, indar merkea behar, bizitzan zehar, gure libertadea, kateatu gabe, paseatzeko!

Are gehiago. Aipatu-berri dugun askatasun hori, baldinkizun zaio vanguardialleari bere eginbeharra bete ahal izateko, hau da, eman behar duan "zerbait berri" hori lortzeko. Vanguardistak, dio Ionesko'k, besteen buruz ez-baifian berenez pentsatzen du. Txillardegiren "beti-lehenen" kontrako, hain zuzen. Vanguardia-gizonak zerbait sortu behar du beti. Ez da kopiatzaille, bai kreatzaille. Ez da maniki.

Batzuk diotenez, parre egiten dakian piztia ei da gizona. Ionesko'k pentsatzen du baietz; baiña, gauza berriak sortzen ditugun animaliak general batez ere, dio. Hau edo bestea, baiña betiere sortu, kreatu: katedralak, sinfoniak, zapatak, poemak, zigarroak. Ezer bada, horixe da gizona: asmatzaille.

Gizonaren konzepzio hortatik, ondore bat dator berealaxe arira. Zein izan diteke, hortaz, vanguardialako artista baten eginkizuna? Ionesko'ren gardiz, "autore batentzako lau hitzetan oifarritzen da eginbeharra: egiak salatu eta esan".

Bein, gaurko teatrogillerik onena nahi ote zuan izan galde-egin zion adiskide batek Ionesko'ri. Baietz, ta ia, ba, ze moduz, esan zion Ionesko'k yoranez. "Errez lor diteke hori —erantzun zion proposagilleak—, mezu bat, mandatu bat, eman dezaiguzun zai gauzkatzu. Orainarte zure obrak ez dakarkite: zaitetz brechtar eta marxista". Ionesko'k erantzun zion beste zenbaitzuk bazeramakitelata mezu hori, ezaguna ere zala, berak hartzen bazuan besteena ber-esan besterik etzuala egingo, ezer berririk asmatuge. Ta ezetz. Gañera, hortara, ezin zitekela bere garaiko teatrogillerik famatuena biur.

Gertakizun hontatik atera diteke garbi vanguardista baten jo-kaera.

Beste ifioren pentsaera atzera esatekotan, ez du idazteak merezi, bide da Ionesko'ren iritzia, nik uste. Ikuskera hontatik arbuatzen ditu, kupidarik batere gabe, Sartre, Osborne, Miller ta beren tanke-rako idazleak, ze, ezkertar konformismoaren errepresentante besterik ez dira-ta. Politikazko liburu ta hitzaldietatik ezagutzen dugunetik kanpo ez baidigute ezertxo're eskeintzen idazletzarrok, baietz du ausarki Ionesko'k.

Hauen kontra, esaten du, artezko edozein egintza derrior izango da intuizio orijinal bat, sakona edo zabala, artista bakoitzaren sormenari dagokionez, baiña, berriz dio, beti ifortxori ezer zor ez dion intuizio orijinala. Hortarako, irudimen ugariari, iturriko ur fres-

koari bezela, askatasuna eman behar zaio, utzi ibiltzen, korritzen, deusi lotu gabe.

Vanguardiagillea, ba, diogunagatik, behartua dago beti zerbait berri ematera. Ta, horregatik izango da, asiera batean behintzat, gaizki artua vanguardiako obra hori, kritikatu, aurre-iritzi-pean epaitua. Izan ere. berritasun hau dela-ta, artezko edozein kreazio, mingarri da: irakurlea zauritu egiten du, gehienentzat iraiña da, sumiña probokatzen du, bere kondizio ez-oiuagatik. Ezin bestela izan: sortze berri bat, abenida eder eta oituetatik iges egiaz, soroetatik, mendietatik, baidoa.

Hala uste du Eugène Ionesko-k, ta hala egiten ere. Esanetik egifera ez du-ta berak gure koldarkeriaren zulorik ametitzen.

Ulerzten da, honekin, Ionesko'ren tirani ta akademikeriaren aurkako gorrotoa. Ez da harritzekorik. Gehiegikeriak erruz gertatu baidira, zalantzarik gabe, gai hontan. Herriaren nahi ta pentsaera jakitearen monopolio lotsagabea sarriegi egon baida batzuen eskuetan: heurek zekiten herriari atsegin ta beharrezko zitzaiona; ta horixe ematen zioten asegarritzat, nola ez! Baiña (beharrik!), aurretiaz eta hortarako, berek agindu zioten herri horri, diximuloak dakizkian milia modu izkutuz, nola pentsatu ta jokatu, zer eskatu.

Munduaren hedadura duan jokabide honen aurka jarri da gogorki Ionesko, vanguardia-gizona danez: "Esabide bat —baita ere izaera bat— agindutakoa edo legetua danean, horregatik beragatik onartu-ezifia da". Esana dugu jadanik, oposizioa ta etendura dala vanguardia, Ionesko'rentzat. Beraz, vanguardiagilleak, gizarte baten barruan gizarte horren kontra jokutzen du, edozein bizimolde barnean dagolarik bizimolde horren aurka beti.

Benetakoa vanguardiagillea, ez da ifioiz apologista, aldegille ta zaitzaille, danaren kritikalaria baizik, gaurraren kritikagille. Eugène Ionesko eredu.

\* \* \*

Vanguardia mintzoak, beste esanai batzuk ere ba ditu, ta Ionesko-k ba dakizki. Baiña, berak diona: orain klasiko agertzen zaizkigun arren, egille hoietatik asko ta asko vanguardiakoak izan ziran beren mendean. Dudarik ez: etzaigu ulerterreza, Maurice Donnay, Bataille, Anouilh, Giraudoux, ta beste zenbait, beren garaiko vanguardiagilletzat hartzea. Hala da, ordea, gure begietarako klasiko biurtu badira ere gaur.



Billiaren ibilliaz bidea egiten da, dio Machado'k. Eta horixe gertatu behar zaio edozein vanguardiarri, ona bada. Denborarekin, trazizioan murgiltzen ez dan vanguardia, ez da, haren itxura izan arren, egiazkoa. Hots: ez da vanguardia.

Pontu hontan eskubidez sor dakiguken bidezko bildurra ezabatzeko, —hots, edozein sasi-arte merke saldu dezaigutela egiazkoaren truke—, beharbada hauxe da ezaugarri bakarra: geroari azken-hitza uztea.

Benetako vanguardia, egunen batean, herraren ezagutzera etorri ahalko da, etorriko da. Lege da, Ionesko'ren ustez.

Fisika ta Jeometriako lege berriak ere, asieran, etziran ifundik ere errikoiak, ez itxuraz herriarentzako. Gaur bai. Holatsu gertatzen da vanguardiak egintzarekin ere. Asiera batean, minorientzako izanen da. Edozein arte berri, herri-igufieko da. Egia. Baiña kontuz: herri-gorroto hori ez dagokio berez eta izatez. Ustekabeko agertzetik dator. Garbi dago: vanguardiak obra bat, berez eta helburuz, herritarra da, ta herriarentzako. Ezpada, ez da vanguardia.

Hala, irizpide zuzenez, nik uste, berexten du, ba, Ionesko'k egia eta egiaren itxura, alegia, vanguardia eta sasi-vanguardia.

“Ez dit ajolik publikoaren arrerak”, aitortzen du garbiki Ionesko'k. Sinistuta dago Ionesko eritlariak ez duala, apropos ta borondatez, herri-gorrotorik, herrikoiz-izaterik, billatu behar. Arraroago, ulerkaitzago, ta hobeago, ez da ifioiz arau zuzena izan, nik dakidanez. Baiña ezta ere —hau ere arrisku ta egi!— ez du billatu behar artistak herrikoiz izatea, herri-arteaz egitea, gehientsuei hitzegitea. Gehienei mintza banakie, orduan bakoitzari ezer gutxi esango nioke. Ionesko'k, teatroaz dion hitzez esateko: konfesziozko teatroa da holakoa. Arazoketa jeneralekin osatzen baida, betiko “klise”-kin eratzen, jazoera eza-gunekin. Konformismoaren ezaugarri besterik ez da.

Publikoa eukitea eta errikoiz izatea, bi dira, ez bat.

Ezin al diteke, ba, guztiontzat hitzik egin? Bai. Bide bat dago, hortarako. Barneko, arimako arazoketa (artista bakoitzak bere erara, askatasunez) azalduaz. Hor baigera guztiok bat, gizonaren funtsezko probleman, edozetariko bizimolde ta izakeraren gaitetik. Horregatik esan ohi du Ionesko'k, arteak, (egiazkoak), batu egiten dituala gizonak, batu, ez aldrebes.

Esango nuke, laburtuz: askatasunak elikatzen du vanguardia. Askatasunak eta berritasunak. Eugène Ionesko'ren ustea dalakoan, diot.

# BURGESKERIAREN ESKANDALUA...

joseba andoni etxabe

Ez dut kontu berririk esateko asmorik. Soillik, guztiok eguneroko bizitzan ikusi eta sufritu dugun zerbait aztertu.

Kristautasunaren jokabide batzuekin ifioiz ematera iritxi behar ez genduan zera batera eldu gera: eskandalua ematera, alegia. Benetako kristau testimonioa eskatzen diguten langille, behartsu, txiki, aul eta gudan bi jokabide ikusten dituztenentzat erorbide bihurtu gerala esan nai nuke, sarritan dugun jokabide itxuratiarekin.

Eskandalu au beste era guztietako erorbide denak baiño zital eta kaltegarriago denik ez dut batere zalantzarik. Oraindik gehiago esango nuke, gaiñera: emagaldu eta likiskeri gehienen iturburua or billatu behar gendukeala; ba, urdaska auetatik euneko larogetitamar baiño gehiago gizarteak eragin edo derrigortuak direla, dio J. Leclercq-ek.

Gaizpidea, oztopo egin eta erori arazten gaituan arria da. Pekatutako bide ematea. Gure itz, jokabide, jardun, dei, irakur eta ikus-

gaiz txaharrera joaraztea. Astuna, noski, pekatu au; eta "ifiori okerra erakusten dionak, obe luke olako orrek, asto-errotarri bat lepotik zintzilikatuta itxasoan behera amildu balute" (Mt. XVII).

Gaizpidea lizunkerira bakarrik lotzea aren mailla zabalak gehiegi istutzea litzake. Ori egiten, ordea, oso gera abillak, atzerrietan baiño gehiago nik uste, uts egiteko bildurrik gabe. Kanpoko jendeak ere sarritan esan digute auxen bera; eta arrazoia ez zaie falta, gero. Baiña esan beharrik bai ote zegoen? Ez dut uste, ba gerok ere ez gera ain itxu. Eta ikusi gerok ikusten genduan barretetik. Ala ere, ez konturatzea obeto zitzaigun, patxadan eta egokiago bizi gindezen, ekaitzaren aurrean egalper edo abestruzaren irudira.

Beatza luzatuaz laister emango dugu ezagutzera, erori aldia izan duela-ta, maternidade etxe batean izkutatu behar izan duen neskame gajo ori. Baita ere langille bat, txukuntasuna txukuntasun dela-ta, edo pekatu batzuk ezin direla ametittu-ta, lantegiak botatzen danean.

Kristo berriz etorriko balitz, eta pekaturik bere baitan ez daukanak botatzeko lehenengo arria esan, jakifia, beharbada guztiok izkutatu beharko genduke, gaur besteeri arrika gaudenok, arri beroien azpian.

Artu degun gailatik ez dezagun igesi. Argi esanda, auxen gertatzen dena: seigarren aginduko gertaerak bakarrik dauzkagula eskandalutzat, eta ez gera ohartutzen (obeto esanda, ez degula nai) bosgarren eta zazpigarren eskandalizatzailetaz, beharbada gerok ere ez baigera esku garbi-garbidunak.

Gizadiaren pekatu mota maillak, bakoitzari bere balore juxtua emanaz, ederki asko dakarzkigu Buero Vallejo-k bere "Concierto de San Ovidio" antzerkian: **Adriana**-k, bere bizitzaren lizunean eta edozein gizonezkorentzat prest egonarren, behartsuen odola txupatuaz kutxak urre ta zillar dizdiratsuz beteta zeuzkan sal-erosle Valindin-ekin konparatzean, onela dio David itxuari: "Baiña, nere bitzta lizuna Valindin-en egiteak baiño zikiñago ote? Ez, ez orixe; Valindin-en ondoan, zuzen jokutzen dut nik". Bi bizimodu oietan makurragoa zein zan zuzen ulertzen zuen Adriana-k, beraz. Ala ta gutziz ere, eskuzabal, on eta zintzoagotzat eukiko Valindin gizarteak, ordea... Au mundua! Justizi-zale porrokatua dan gaurko munduari beste ainbeste gertatzen zaionik ukatu al genezake?

Bidegabekeri izugarriak or zehar ikus ditzakegu. Jazkeran edo ondartzetan azaldu edo egin ezin dana, dirua dela medio publizidadea egiteko errez agertzen da. "Bikini"-kin dijoazen neskatzak eskandalizatu egiten gaituzte, baiña oso lasai iraungo dugu, esate baterako, gezur eta maltzurkeriz uztarrirituta. Parkeko aulkietan neska-mutillak

darabilzkiten festak bezin "berde" ez ote dira kreditu bat moldatzeko egin oi diran matematika-kontuak? Guzti ontan, erabat atzeratu gerala, esango nuke, eta kontzientzi zuzena aspaldi galduak. Ez da iflor, zentzudunik beifitepein, emaztearekiko dituan artueman eta kuttunkeriak ofizinan daukan ogei urteko mekanografistari kontatuko dizkionik, bai ordea bere negozio okerrenaren mufla ulertzea lasai emango dionik. Eta txiste berde bat txutxu-mutxuka edo ixil-mixilka kontatuko dugu lagunartean (eta ez-ezagunak badaude, areago); lantegi-administrazio-kontsejuaren billeran ostera, zenbat eta indartsuago abotsa, obe, ifloren bildurrik gabe esan eta denak entzuteko: "Negozioa ongi joango bazaigu, beste guztiek gaizki joatea komeni". Jokabide makurrena zein ote?

Bildur naiz gaurko gizartea maitasunarekiko berdetasunaz gehi-egi ohartzen ez ote den, eta negozioen usteltasunaz ahazturik bizi.

Mundu guztia eta gizonaren egite bakoitza antzerki bat besterik ez da. Au orrela izanik, moral-epaia antzertokiko gertaerata zergaitik baztertzen dugun ez dut ulertzen. Baita lege, negozio, kontratu eta publikidateko argi-buru edo konsignak ere —zer demontregaitik ez!— "estrenatu" egin behar genituzke. Maitakeriz kanpoko beste egite askoeri ere antzerkiei eman oi dizkiegun klasifikazio moral berdinak eman behar genizkieke: "reparos graves", "mayores con reparos", "totalmente desaconsejable"... oietakoak. Era ontan, gizarteko amaika bide itxita edo debekaturik lirake 18 edo 21 urtez goikoentzat ere... Ekonomiku jokuetan, urratx edo eladu saltzea bera persona guztientzat "apta" ote dan bildur naiz.

Esan ditudan guztiak oituren puritanismu zale naizelako ez ditut esan, ez. Eskandalu eta jokabide okerrak justizi konmutatibuz gauza guztieri neurri berdifean ezarri dezaizkiegula, eskatzen dut bakar bakarrik.

Lizunkeri eta loikeriekin kezka aski eduki oi ditugu, eta oso gutxi urre-jokua darabilkigunean. Makifia bat aldiz entzun duzu andereifio bati bildurrik gabe esaten: "Aizu eder, agirian duzu azpiko gona". Diru-zale, politiku, sal-erosle eta beste askoeri zergaitik ez esan beste au: "Ziri, maltzurkeri eta gezurra agirian dituzula, gero, jauna?"

### **pekatari agiriak Eliz-barnean**

Adierazi dugun guztia gaizpidetsuago bihurtzen da oraindik nagusi, sal-erosle, finantzalari eta kristau diru-zale oiek egifialetan Elizaren barrutian irautean.

Beren modura dira oiek erlijiodun, ez ordea Jaungoikoaren arabera!

Kristautasunarentzat enbarazu eta ekaitz bat besterik ez dira olako gizonak. Borondate onekoei ez die erorbiderik sortuko berez txahar diranek; baiña onoko auek, nola elizkoi eta zintzotasun itxuraz apain jazten diran, edozein, baita santuak ere, bereganatuko lituzkete. Ba, "elizkoiak eta karidaderik ez duena, pozoia", dio esaera zaharrak. Gaizkille izatea txaharra da, baiña ontzat bere burua azaltzea gaizkille izanik, okerrago milla bider. Kristautasunarentzat legami txaharra benetan. Zargaitik? Beren kontseju, erakutsi, ejenplu eta zuzenbideekin sartzen direlako labeen, eta, jakifia, derrigor irten behar ogi makats eta espiritualidade ustela.

Pekatarari publiko auek nola moldatu ote dire, Elizara eta sakramentuak artzera sarri joanaz, lehengo era berdifian irauteko? Oso errex; ba, formula apropos bat aurkitu dute: beren gustora moldatu erlijio osoa. Nai dutena egiteko galerazten dien aginduak legetik borratu. Lagun urkoaz mintzatzen diran orrialde guztiak Ebanjelioetatik kendu, eta gai onetazko itzaldi guztieri belarriak ongi itxi. Eta, azkenik, elizkizunetan denen aurrean tente jarri, ifior ez bezelako kristauak direla denak ikus dezaten.

Bi erabaki besterik ez zeudela uste zuan Jaungoiko berak Berri Onaren aurrean: bai ala ez. Kristau zahar eta axeriek ogei gizaldi esperientzian igaro ondoren, ez bat eta ez besteko jokabide ugari asma, ordea!... Jaungoikoa eta pekatua, Berri Ona eta mundua, Kristo-ren mendiko itzaldia eta norberekoikeria edo egoismoa gizonak ain abilki sistema paregabe ortan alkartzean, Jaungoikoa bera ere arrituta egon behar duela esango nuke. Izan ere, gizonak ba du kaskoan buru bat, eta asko ikasi du, eta ez alperrik; au dala-ta, bere ikasien ondoan Kristo-ren erakutsiak xahar eta antzifnako bihurtu dire mundu diru-maitale onentzat... Ez da arritzeko, gizona ezagutu ezkeru.

Ez dakit "ifioaren zona" ez dan ortako gizonak, beren buruak ontzat dauzkaten oiek, erremediorik bai ote duten. Alabaiña, inkonstantiz-edo, borondate auleko gizona pekatuan erortzen danean, erreza erremedioa, kontzientzia bere jargoian dalarik dena lortu baidezake Graziarekin. Ez, ordea, Pio XII-gnak zion "pekatu sentidua galtzeraino" eltzen geranean. Ara argiago esanda: norbaitek baten bati ezer ostuta gaizki egin duela badaki, zuzen bidean jarri dezake ura, bere borondate pittin bat indartuaz. Ezer ostutzen batio erosle bati, berriz, ondo egin duelakotan, "mundu guztiak egiten duela-ta", edo "los

negocios son negocios" esanez, alperrik onentzat: Ministerio danak mogitu arren ez dago erremediorik.

Gaizki egin duela eta pekatari sentitzea, konbertsiorako lehenengo pausoa dugu. Au gabe, salbazioa ezifinezko da.

Nazio arteko arazoan ere, bakoiztiar edo indibidual egintzan, beste ainbeste gertatzen da. Baita ere, bere okerrak estalkitzen saiatzen dira nazioek, bakoiztiarren antzera. Zehastasun auxe bakarrik ekarriko dut esanaren siñisgarritzat: "MATER ET MAGISTRA" azaldu zenean, alderdi guztietako agintari eta politiku denak ongi baiño ongiago artu zuten, Aita Santuaren itzetan ludi guztiko gobernu-modu, lege eta kodigu denak onartu eta onetsiak izan bailira bezela. Eta beren erantzunak alderdi guztietatik jotzen duan aizea bezela eldu ziren Vaticano-ra. Zer zioten erantzun oiek? Denak berdin: an (USA ala India-n, Suecia ala Madagaskar-en, Espafi, Frantzi ala Colombia-n tabar) bere erakutsiak aspalditik zetoztela betetzen...

"Baifia, Jauna, zintzo eta errugabe ote dira gaurko gizon aundiki guztiak, Ebanjelioko fariseoaren antzera; edo-ta, lurretik aurpegirik jasotzen ausartzen ez diran publikano gizarajoentzat bakarrik ematen ote dituzu zure Elizburuagandik datozten erakutsiak?". Zergaitik ainbeste gizon itxu? Frantzi, Espafi, Itali, Ipar eta Ego Ameriketan ez ote dago ezer zuzentzekorik? Enziklika bikain orrekin benetan akor ote kodigu eta kontzientzi guztiak?

Alperrikako eta erremediorik gabeko dena, gauzak onela dijoa-zen bitartean.

Komunisten egokera zentzudunago ez al da? Jakin ere ba daki ongi Komunismoak gorrotozko jokabideak kristau-moralak zeharo debekatzeko dituela. Baifia gorroto eta bengantzarako barru-indarra ezin itotzean, Elizarekin ausi eta kristautasuna utzi egiten du. Jokabide zintzoa, beraz. Alabaifia, justizi eta karidadeaz Ebanjeliok zer eskatzen dion ba daki pekatari burgesak, eta, alaz ere, bete behar astun oiek gordetzeko indarrrik gabe agertu arren, ez du Elizarekin belaxe ausiko. Ez ori bakarrik. Gaiñera, oraindik, jokabide edo logika zoragarri bategaz, bere erara moldatuko du Ebanjelioa bera. Zerua, lehenengo emen eta gero an, zihur bereganatuko du onela, alajaiñetan!...

Kristautasuna utzi edo falsifikatu beharrean arkitu ezker, uztea obeki legoke. Onetxegaitik, langilleak, naiz edozein eratakoak izan, benetako kristautasuna bizitzeko kondizio obean aurkitzen direla, ez dago ezparrik. Bernard Shaw-ek zihurki dion bezela, "kristautasunaren aurka txertatuak daude burgesak".

Egoki, patxadan eta nai duan guztiarekin bizi da jauntxo burgesa,

lagun urkoaren ajolik gabe. Ajolik balioke, ostera, eta ikusi oien justizi edo zoriontasun egarria, obligazioen bat ba duela, adierazi lezaike. Ori ez komeni, ordea, bera lasai biziko bada! Ortxe kokka!

Langille taldeak Elizaren aurka eta burgesak kristautasuna falsifikatzen ikustean, misio-lur bihurtu zela ohartu zen Frantzia. Guk, ostera, nazio barnean egoera berdintsua izaki, sifisle eta sifisgabez elizak bete-betean ikustearekin, poztu eta lozorroan lasai iraun; eta, arrokeriz beteta, munduko aberrik "katolikuen" dela esateko ez dugu batere lotsik, gañera. Nun aurkitzen ote katolikotasun ori? Ametsetan bizi behar al dugu beti?

### eta gerta beharrekoa gertatu zen

Jokabide itxu ontan, basurde tankera ematen diot burgesari. Beste norbaitek, Leon Bloy-k ain zuzen, "zerritzat" dauzka... Bai, basurde txaleku eta korbata dotorearekin, bapo purua erreaz despatxuko mai aurrean. Ez dute beren langille eta erritarren benetako egoerarik eza-gutu eta zuzentzeko ardurarik ifoiz izango. Oraindik gehiago (eta au ere esan behar), **Españia**-n "sozial arazorik" ez dagoela dioten burgesak, asko dira. Auengandik gizarteak zer espero dezake? Onik ez eta txahar ugari: langille eta behartsuentzat kristautasun eta Elizarako oztopo izan; benetako kristauak nabarmendu eta eskandalizatu; etabar. Itz batean: gizartean gorroto eta ikusezifiak sortu. Esan ditudan auek denak, Pio XII-gnak "XX-garren gizaldiko eskandalu ikaragarriak" zelakotu zituan. Eta guk, ez dagoela deus egiterik, edo-ta dena egintzat eman?

\* \* \*

Erbesteratu baten egunkaririk artutako orrialde bat. Luze xamarra, baiña erakutsi eta esanai aundikoa, bere sakona ulertzen badugu. Ainbeste ta ainbeste langille errukarrien gertaera samina. Inguruan zeuzkan kristauen "gezur" eta "ipokresiak" eragindako desilusio makatza agertzen dute bere azken itzak. Ara nola dion:

*"Kamiora arte nere aita eta anai zaharrenak lagundu didate. Mingarria nere azken agurra, beltza oso. Etxean gelditu ziran ama eta beste anaiak; negarrez izango dira, zihur.. Lineako autobus urdin eta xahar ontan sartu eta agur ene sorterri maiteari. Nork daki noiz arte..."*

*Teilla azpiko gela edo ganbara bat nere bizileku; danera, 25 pezeta eguneko. Ispilluan ikusten naiz: kolore txuri-orixka*

eta orain iru illabete etorri nintzanean baiño askoz ere argalago. Ez dut lan iraunkorrik arkitu oraindaiño. Eguneroko aldizkaria ikusten dut, ia lan eskeintzarik dakarkian, baiña...

Janari-denda batean nago, oraingoz: enkarguak etxeetara eramatea nere lana. Gaur seigarren bizitza batera igo behar izan dut, saski bat patata bizkarrean dudala. Montakargas aberiatuta zegoanez, aszensorean igotzeko asmoz nintzan, baiña atezaiak ez dit utzi, nunbait etxepeko neskatx liraiñentzat kutsututa gelditu zitekean langille bat saski ta guzti bertan sartzean. Dena dela, eun ta berrogei eskail-mailla igo behar izan ditudala!

Nere etxeoandrea txit ona dut. Goseak edo nazkak onezkero illik nintzan beragaitik izan ezik. Zenbat aldiz izan ote dugu —azkenengoz gaur goizean— elkar-izketa au:

—Jan ezazu au, lan geiegi egiten duzu-ta.

—Ezin dezaket, ba ori ez da sartzen nere kontuan, edo-ta ostatu dirua igo beharko didazu, zerorri galtzen atera nai ez badezu, erantzut diot.

—Ez, zu beartsu zaude eta lan egin naian; orregaitik, lagundu egin behar zaizu...

Malkoak ixuri ditut poztasunez. Arrigarria emakume au. Mixeriarean ertze-ertzean, esku bat eskeintzen zait lagun.

Lantegi batzuetan aurren pruebak egiñak ditut. Alperrik. ordea: ez nau iñork artzen, plazarik gabe daudela-ta, edo erantzunik ez etortzen iñoiz. Sei illabete daramazkit etxetik urrun, eta gero ta etorkizun beltzagoa.

Azkeneko lana ere galdu dut. Desesperatuta nabil. Zoro bat dirudit kalean. Bat, bi, iru... kale or zehar. Andereiño batekin topo; automobil batek ia akabatu nau eta urizain batek bost pezetako multa ezarri dit. Auxe bakar-bakarrik falta zitzaidan! Neuzkan azkenengo diruak...

Ostatura bueltatu naiz, eta lo-gelara ankapuntetan sartu, bu etxeoandrea minberatzerik ez dut nai. Leiorea urreratu, eta gaba iñoiz baiño beltzago zirudian. Azkenean, negarra bihotz-begietan. "Zein errukarri naizen, Jauna".

**Biar! Biar!**

Beatx-ikutu batzuk atean. Nor ote? ...Nere etxeoandrea.

—Baiña zer egiten duzu emen? Ez zaitut somatu noiz



etorri zīñan. Ara, "Grandes Talleres Reunidos"-etako esku-  
titza eldu zaizu.

Estalkia urratu eta... "ontzat eman ditugu zure prue-  
bak. Gure ofizinetatik pasa zindezke il onen 25 ezkeru".

—25 noiz da? —galdetzen dut.

—Biar, —etxekoandreak.

—Biar! Biar! Biar!...

Neure barruan ez nintzan kabitzen. Parre, negar, eta  
etxekoandrea besarkatu. Etxeko guztiak esnatu nituan nere  
zalapartaekin. Urrena, nere sendiarekin gogora nintzan. Izan  
ere, biar!, biar! salbatuta nintzan. Kulean nengoen, ez dakit  
nola, baiña kulean. Iñor ez zan ageri nere berri ona eman  
nezaiokenik; eta, orduan, barnean gorde eziñik, zerura begira  
oiu zoroka zera esan nuen: "Eskerrak, Jauna, beti gurekin bai-  
zaitugu". Goardi bat igaro zen, multa ezarri zidan uraxe, eta  
nere aurrean gelditu. Gelditu nintzan ni ere, eta bere bibote  
aurrean karraxi egin nion: Biar!, biar!

Baiña beste edozein egun bezin beltza egin zitzaidan  
"biar" zoriontsu ura.

Esikutitzak agindu bezela, azaldu nintzan Grandes Talle-  
res Reunidos-etako ofizinetan. Eta: "sei illabete egingo dituzu  
oraingoz; gerokoa, orduan ikusiko da". Jornala (ongi gogoan  
dut): 21,75 pezeta eguneko. Zer adierazi naiz onek? Lehenik,  
seguro sozialik ez neukala; bigarren, ostatuko gastuak ordain-  
tzeko derrigor beste lan bat billatu behar nuela.

Ala ta guztiz ere, an gelditu nintzan, eta gogoz egin nuen  
lan, gerokoaren itxaropenarekin.

Sei illabete ondoren, nagusiak deitu eta: "Oso gustora  
nago zurekin eta langintza berean jarraituko duzu. Alabaiña,  
nominan ezin zaitzakegu sartu oraingoz, impuestoz ittotzen  
baigaude. Behar bada, urte azkenean-edo...".

Berriro itxoegitera. Urte azkenean, seguro sozialak eman  
zizkidaten, ez ordea jateko behar nuena. Ezkondu eta su-  
kalde bat sortzeko itxaropenik zoriontsuena ere galdu nuen,  
galdu.

Etorri nintzaneko uriaren eder eta dizdiratasunik ez dut  
gaur aurkitzen. Iraulika, ke, ots, ostatu usai, bakardadea; bes-  
terik ez du neretzat uri onek. Aitortzen dut ni baiño zorion-  
tsuago izan direla asko ta asko; baiña nere zoritxar berberan  
beste asko ta asko daudenik ezin uka. Kristau maitasunak

*bihotza gorrotorazitzen dit. "Seguridade osoarekin lasai bizi diran jauntxo eta burges oiek nire anai direla?" Gezurra!!! Egia balitz, ordea, laguntzen ez didan kristautasunik ez dut behar, eta or konpon. Ito, ill, krisma ateratzea dela onen onena jauntxo eta burges deneri, sinisten asia nago, ainbeste milloi gizon biziko bagera".*

Oneraifio langille erbesteratu orren egunkariak diona. Epaitu zerorrek. Eta ez uste izan urtean behin edo behin bakarrik gertatzen dela España-n, langillea "ifioiz baiño obekiago" bizi dela-ta; olakotsu moduko gertaerak amaika billatu ditzakezu Euskal-Erriko erririk lan-tegitsuenetan.

.....

Konklusio bezela, zer esan genezake lagun urkoaren mixeriaz, lagundu ezik, errukirik ere ez duten burges oietaz? Nik ez dakit, baiña auxe bakar-bakarrik esango nuke: justizi-eza eta sozial sentidu-gabekeriak ausitzeko almenik ez badute, Elizarekin ausi obe lutekela lehenbaitlehen, Eliza eta sakramentuekin itxurak egiteari utziaz. Beste zerbait ere bai: kristau karikatuta auetako edozeifien diru-jokuak (beren egiteak baiño ez baidira) emagaldtu baten parke erdi-erdiko eginkizunak baiño eskandalosoago direla, zihur. Askoz ere makur, arro, petral eta maliziatiago.

Eta, bukatzeko, "Del Paternalismo a la justicia social" liburuan, Ignacio Fernández de Castro-k dakartzkian itzak neureganatzen ditut:

"Pentsa dezagun gizartea eta, batez ere, lantegi-nagusitza arrazoirik gabe zapaltzen, lan-saria arrapatzen, bere bizitza pixkanaka akabatzen ari zaizkiola konturatzen dan langilleaz. Onezaz gaifiera, langillea egokera ontan aurkitzen dela: erlijioak eta, batez ere, apaizek esaten diote mixerioek alaiki artu behar dituela, justiziaren alde lan egin dezakeala, baiña gorrotzko ideletatik burua garbituta... , kristau izateak ala eskatzen duela-ta. Au dena ulertu ere ulertzen du. Baiña, igande goizean sartzen da elizan, eta ara nun aurkitzen duan bere nagusi gaizkillea, belauniko errezoetan, lehenengo aulkian. Beragaz galdetzen du, eta erantzuna ezin aldrebesagoa: "Bai, kristau ona da oso: Jaunartu sarritan, jaiero mezatan, ez dakit zein kongregazioetako, eta karidadeko eginkizunetan bera beti buru". Egidun nor ote, ez da erreza erabakitzea; baiña emen billatu beharko lirakeala iruditzen zaif eliza bat baiño gehiagori su-emate eta ainbeste apaiz erailtzearen esplikazioa".

QUO  
VADIS,  
EMAKUME?

J. J. Olaberria

**Lenin**

*"Askatasun mogimendu oroen esperientziak erakutsi duena da: erreboluzioaren garaipena emakume-eskuartzearen neurrian dagoela".*

*"Iru dire gaurko aldiaren ezau-garri bereziak... Bigarren, guztiori ezagun zaigun alderdia: emakumearen sarrera herrien bizitzan..."*

**Joan XXIII, P. IN TERRIS**

Feminismoa modan dago.

Lehen, moda paperak, zine orrialdeak eta kioskoetako errebista merke batzuek bakarrik mintzatzen ziren emakumeetaz. Nola mintzatu ere!...

Gaur, telebixioan, kultura agerkarietan, Elizaren enziklikae-tan, an-emengo konferentzietan, emakumea prolema bezela ager-tzen zaigu. Eta arrazoiarekin.

Ezin ukatu diteke, emakume gaixoa —ez berez gaixo delako noski, baizik gizarteak ala nahi izan duelako— “tabu” edo mytho arraro oietako gertatu dela historia zear. Eta, dudarik ez, arras gaizki pasa duela. Zori onez, egungo gizartea —mutatis mutan-dis, jakiña— tabu makurren desegille amorratu atera zaigu. Oieta-ko bat gutxiago, beraz, emaztekoa (1) bere askatasun eta nortasun kontzientzira iristean.

Emakumearen benetako jaiotza, promozioa esaten duguna, joan den gizaldiaren azken partean somatzen da, teknika ager-kundearekin eta ekonomi askatasunarekin batera. Baiña ez pentsa gizona izan denik ortarako sua aizetu duena. Baizik oso bestela, eta garbi aitortu behar dugu: emakumeak berak errotu duela bere goratzea edo promozioa, eta ez bestek, amaikatxo “presioen” aur-ka. Eta idarka ia beti.

Ez ori bakarrik. Gizartea bera gertatu dela, esango dut, emaztekiaren etsairik setatsuen. “Gizonkeriz” egindako gizarte reaktionarioa. Historia luzea emakumearen kontra zegoen. Ta, nola diran gauzak, Eliza bera ere bai, bere agindu nagusia abandonaturik: alegia, gizaki oroen berdintasuna eta dignidatea, Egi-llaren antzeko direnez. Gauza kuriosoak jaulki zituzten alde ontatik garai bateko elizgizon beneragarri aiek. *Graziano* lege-gizonarena izan behar du esaera: “Emaztekoa ez da Jaungoikoaren irudira egiña”. . . *S. Tomas* filosofo ta teologo ospetsua, berriz, guri parra eginarazten digun beste prolema au planteatzen zen bere baitan: pekatu orijinalik izango ote zan gero, emakumea sortu ez izatea. . . Ez du komentariorik merezi, historiaren alde-tik esplikatu baditeke ere.

Dena dela, emaztekiak, errezelo txar guztien gaindik, jaso du alere burua. Tente dagi iñoren lotsarik gabe. Garaile irten da gizon menpekeririk askatzeko burruka izugarri onetan. Emaku-

---

(1) Emakumea eta emaztekoa biak nahastuan erabiliko ditut, emakumea ez baita itz “garbia” Bidasoa-z aruntzko euskaldunentzat. . .

mearen promozioa egi pozgarri da egun, nahiz oraindik ez osoki, eta aurrera dijoa presaka.

Egoera onetan, ez gaitu batetxo arritu behar, gizartearekin mantendu duan burruka zitalean emaztekoa neurritik pasa bada zenbait puntu eta okasionetan. Ez ahaztu neurriak gizonak jarriak zirela.

Batzuek diote, eta liburuetan ere irakurri ahal izan dut, lehengo emakumeak etxe barnean egiten zuela bere bizitza. Irutara lotzen ziren bere eginkuzunak: umeak, sukaldea, eliza... Ba... ez dagoela ain gaizki ere, esango dut. Amaika bider ikusi dut nire ama artoa jorratzen, patata ateratzen, tabar. Egia, kirtena luzeko atxurra uzten geniola beti, miramenduz-edo. Denok ezagutzen ditugu, berriz, Euskalerrian, segan majo egiten duten atsoak edo, gizona perian dala-ta, beien esneak biltzen izerdia franko botatzen dutenek. Ez dakit ongi dagoen emen esatea, joan den udaran, Goierrri-ko baserri batean ikus-tea tokatu zitzaidana. An ari zan alargun gaixoa abereen azpiak ateratzen, semeak —bat baiño gehiago— telebixioaren aurrean Ingleterra-ko mundiala ikusten zuten bitartean. Eta bidezko bezela zerizkion ama ari, semeek lanetik etorri eta tabernara joan zitezen, aiek ekar-tzen baizuten sosa bizitzeko.

Oraindik emeretzigarren mendera iritxi ez diren errietan —zenbat eta zenbat Irugarren Mundu problematsu orretan!—, umeak bizka-rean dituztela joaten dire emaztekiak sorora, arroza edo algodoia edo tabako-ostoa biltzera. Tabar... Zergaitik jarraitu?

Onekin adierazi nahi dut soilki, emakumearen sozial promozioa ezin ditekeala finkatu etxetik kanpora lan egitean. Xinpleegia litzake. Lehen ere, gizonok olako edo alako geralako, lana obeki sortu zaino emaztekiari. Gauzak bere onean eta neurritz: emakumearen goratzea ez da elduko etxean, elizan egotearekin, eta ezta ere lantoki eta ofi-zinetan sartze utsarekin. Gaurkoz, emakumearen eta lanaren arteko eztabaida beste baterako laga nahi nuke. Goazen, ba, aurrera.

Funtsezko promozio prolema aruntzago dago. Emakumearen go-ratzea aitatzean esan nahi da, gizartea dela-historia dela-erlijioa dela (ez da errex zergaiti guztiekin ematen), emakumearen baitan loz-orroan edo ittota bezela egon diren almen izkutuen eta talentuen esnaera eta piztuera.

Gure egunetan, emaztekiak ba du toki legedian, unibersidadean eta politikan. Baiña ez da orrela gertatu beti. Arras kontatuak izan

dira historia zear, gizezkoek eta gizezkoentzat osaturiko zibilizazio esi ertsia saltatzera ausartu direnak. Ta ori, sexo indartsuak —terminologian bertan ikusten da menpekeria— “tolerantzi” gisara utzi izan balu bezela, ikusi izan da beti. Eta eskandalo izugarritzat eduki du gizarte konserbatzailleak.

Adieragarri batzuen bidez ikusiko da garbien.

Joandako gizaldian, Europa-ko emazteak analfabetoa zen eunetik larogei-etan (80%).

Gure familietan, mutillek bakarrik zuten karrera egiteko eskubidea. Estudioa ez zen nunbait “femeninoa”. Eta ez da oraindik atzokoa emakumeak unibersidadeetan ikasteko baimena.

Emazteak sexo utsa bezela eduki da. Edozein negozio zikin bezela esplotatu. Oraindik orain irakurtzen nuen, Frantzi-ko Estadua-arentzat, ez dela “divisa” txaharretakoa emakumearen aragia... Lotsagarri benetan!

Emakumea ona nahi zen: txintxoa, txukuna, eraman aundikoa, etxekoia... Bi aterabide besterik ez zituen: ezkondu ala konbenturatu... Neskazarra frakasatu bat zen eta familirako lotsakizun.

Funtsean, oifarrri bezela, emakumeari buruzko filosofia eta teologia pesimista arkitzen da. Emazteak “gauza” bat da. Gizonaren serbitzari leial. Inpernuko etsai... Teorian ez zaio ukatzen pertsona denik, baiña, praktikan, ez da pertsonaren eskubideen jabe. Gizona gehiago da mailla oroetan, orregatik berak aginduko du beti. Emaztekiak ez dauka zeregiñik gizartearen martxan.

Jaunari esker, egun aiek joan ziren. Egun, Simone Weil, S. de Beauvoir, Lili Alvarez, Indira Gandhi eta beste milloika ez dira kaso arraroak.

Teknikaren zibilizazioarekin batera, feminismo mogimenduak emakume berri bat eman digu, gaur egunekoak. Ez du lehengoaren trabarik arkitzen gizartearen aldetik. Gai da bere bizitzaz ballatzeko. Libre da gizarte arazo oroetan eskuartzeko.

Lehen, unibersidadea, parlamentua, diplomazia, administrazioa... gizonaren feudoak ziran. Emakumeak ez zuen elektzioetan boto emateko eskubiderik. Gaur, naturaltasun aundienaz ikusten dugu emazteak Ministerioen Kontsejuan, Parlamentuan, Sindikatoan, zientifikoen batzar eta sozial ekintza oroetan.

Azkeneko gudu nagusian, milloika izan ziren retaguardian su- plentzi serbitzua eskeifil zuten emazteki baliosak, Geroztik, Cuba-n, Arjelian, Vietnam-en... ikusten ditugu beren erriak salbatzen. Be-

deratzi nazioetan bakarrik ukatzen zaie elezioetan botoa eman eta beren kandidatura presentatzeko eskubidea.

Prensa, radioa, zinea, telebixioa... gutxi dire. Emaztekiak gero ta gehiago idazten eta itzegiten du. Bere iritzia ta sentimentuak ba dute pixurik eta garrantzirik gaurko gizarte mailla oroetako problemaetan.

Emakumea dela bide, gizarte bizitza "humanizatzen" dijoakigula, esan dezakegu, administrazioa gutxiagotzen; aurrerakoan ez zaio alako lekurik emango adimen edo zerebro utsari, baizik indibidua, pertsona —izpiritu eta gorputzez osatua— osoki lortu dedin izango da gizartearen arazoa.

Emakumea ez da sekula iritxi gaur arkitzen den maillarañio. 1948-ko Giza Eskubideen Deklarazioarekin feminismo aideak konsagraturik gelditzen dira. Elizak, Pio XII-gnaren gidaritzan, emaztekiaren dintasuna eta gizakume oroen berdintasuna predikatzen ditu. Sartu da azkenean emakumea errien historian eta onartu du gizarteak. Baifa galdera bat sortzen zaigu: onekin bete al du emaztekiak, feminismoak, bere xedea?

Ezta gutxiagorikan ere. Ezpairik gabe, okerrera egin da: emaztekiea jabetu da bere ahaletaz eta erresponsabilidadeaz gizartearen eraikitzerako eta obeagotzeko, giro ezin ohea sortu da gizarte zibilizatuan. Alaz ere, ume jaio berri bat baizik ez da gaurkoz feminismo mogimendua.

\* \* \*

Ta ordua da, batetik bestera ibilli gabe, feminismoa zertan datzan eta nundik nora dabillan aztertu dezagun, artu ere asmo orrekin artu baidut makina gaurkoan.

Emakumearen sozial promozioaz ari geranean adierazi nahi da, alegia, gizonaren konparazioan legearen aldetik edo praktikan sufritzen duan gutxitasun egoeraren gaintzea; ondasunen, kulturaren eta giza bizitzan beteago eskuartzeko libertadearen lortzea, sozial erresponsabilidade berrien jabetzearekin batera.

feminismoa

Feminismoa, nolabait definitzeko, emakumearen goratzea erdietsi gogo duan pentsamentu eta ekintza mogimendu orokarra dugu. Ontarako, arma auetaz baliatzen da:

- bide-gabeko egoera makurren protesta;
- gizonaren eta emaztekiaren arteko berdintasun teoriko ta egiazkoaren “reibindikazioa” edo eskabidea;
- emakumearen goratzea mailla guztietara eramateko ekintza organizatua.

#### **Giza-emakumearen arteko berdintasun ori:**

- moralaren aldetik**, sexo bieri moral-esijentzi kانون berdina ezarriaz, legearen “pribilegioak” atutzirik, batez ere adulterio, prostituzio, dibortzioaren auzi, ta abarretan.
- politikan**, eskubide ta egiteko berdina emanaz gizon eta emakumezkoeri, bereziki botoa eman eta edozein aginte publikoetan onartuak izateko eskubidea.
- bizibide kontuan**, emaztekiarentzako sarrera ofizio guztietan, langintza berdina sari berdinarekin ordainduaz.
- kultura aldetik**, emakumeari erreztasunak eskuratu ikaskintza eta kultura mota guztietarako, unibersidadeak eta tituloak bere posibilidadegifiaz.
- famili bizitzan**, aita-amen eginbeharrak eta agintea ekiparatu.

#### **Feminismoak ba ditu bere neurri eta arriskuak:**

- ezin onartu ditezke itzez-itz feminismo teoria batzuek, bidegabeko “reibindikazioetara” eltzen direlarik. Berdintasun eta kideasuna, bai, emazteki eta gizonaren artean, menpekeri eta zapalakeriak bazterturik. Alabaina, berdintasun ori ez da matematikazkoa. Berdintasuna ez da berberatasuna edo identitatea. Zeren, bere fisonomiaz eta fisiologiaz, emaztekiak ba du izate edo naturaleza berezi bat, gizonarenagandik desberdin, bien artean batasun eta osotasun eder baten lortzeko egina direnez.



Esan degun guztia ona da, desiragarria. Baiña nola jokatu feminismoaren xedeak bere onean lortu ditezten?

Emaztekiak aunitz mintzatu da bere eskubideetaz. Beharrezkoa zen. Baiña eldu zaio ordua, kasik gizarteko profesio eta aginte publiko oroetan errepresentatua arkitzen den ontan, karraxiak alde batera utzi, eta deretxo oriek berekin daramazkiten betebeharrak konplitzeko prestatu dedin.

Lehenik, *formazioa*. *Codorniz*-en irakurria dela uste dut txixte au: "Irakurtzen eta idazten dakiten espainiolen artean, eunetik larogei analfabetoak omen dira". Ba du giarrik gero txixte onek! Bidezko da pentsatzea: zenbat emakume, analfabeto oien artean? Ez beren erruz, noski.

Gaur arte eraman dugun formazio politika aldatu behar dugu. Ta emaztekiaren formazioa seriozki artu beharrean gera ia umetatik, bere kualidadeak eta ahaltasunak aztertuz, bide bat eskeiñiaz biarko egunean gizarte bizitzan dagokien neurrian errenditzeko gai izango bada. Mutil eta neskatxeri oportunitate berdiñak. Gizakume oroen eskubide nagusia baita beren pertsonalidatearen osokizuna lortzeko posibilitadea.

Edukazio onen faltan, bere pertsonalidatea belaxka izango da bestela, ez da sekula osotoro elduko, eta emaztekiak ez du influentziarik izango gizartearen eraberritzeko. Ez zaizkio interesatuko pertsonalki ikuitzen ez duten gizarte prolemak. Beti zirkulo itxi batean biziko da segurantziz josita. Burrukarako kapaz ez den emakume klase au, bere baitan burrukarako indarrik badaukan ere ez dakiala, bere mundu konformistari loturik agertuko da beti. Okerrena, "oso femeninotzat" eduki dugula beti emakume au, egiazko baloreak aldrebesturik.

Emaztekiak bere kriterioen jabe izan behar du. Zenbaitek uste duten bezela, au ez da dominatzaille edo erretxin izatea. Menpekeria eta beste amaika utsune askoz sarriago ematen dira eldu gabeko pertsonalidateetan.

Bigarren, *gizarte prolemaeri buruzko erresponsabilidatea*. Norberaren prolema eta kontu egoistekin ezin gindezke konformatu gaurko munduan. Gizartea famili aundi bat dugu, eta sende guztiori dagokigu familiaren martxa ona ala txaharra. Emaztekiak ez luke ahaztu behar iñoiz bere papera politikan, ekonomian, erlijio auzian, tabar.

Irugarren, *ezkontza ez du absolutotzat artuko*. Oso korrientea izan da gure artean, "ni ezkondu naiz, eta or konpon", ezkondu ondoren dana zero balitz bezela...

Ezkontzea ez da kontua, baizik norekin ezkondu. Bere gogoko gizonarekin ezkonduko da, ez gurasoek edo bestek nahi luketenarekin. Gizon orrekin ez badu ematen, ez du gutxietsiko neskarar —ze zentzu pesimista erantsi diogun itz oni!— gelditzea, gizartearen onerako.

Eta, feminismoa feminismo, ez du ahaztu behar, batez ere, onoko au:

**Emaztekiak ez dezake joratu bere promozioa eta gizarte bizitzako sarrera, betidanik eta beste guztien aurretik dagokion egitekoa alde batera edo bigarren lekura bazterturik: famili bizitza eta semeen edukazioa.**

Printzipalki, AMA nahi dugu emaztekiak. Izan ere, nork prestatu dezaiotxe gizarteari serbitzu oberik ama on batek baiño?

\* \* \*

Zenbat eta gehiago sakondu emaztekiaren prolema, ainbat eta arriturikago gelditzen da bat. Ez, ez da erreza justifikatzen nahi ta ere gizarteak emaztekiarekin obratu duen injustizia. Ikusi dugu prolema. Izan ere prolemak baztertzearekin ez baita deus erremediatzen. Emendatu gaitezen denok, eta egin leku emaztekiari gure bizitzan.

... "Eun aldiz numerosago den beste proletariotza bat, emakumearena alegia, historiatik at bizi da, alere ifior lotsatzen ez dela. Bere moral egoera ez da askoz pozgarriagoa, nahiz itxurak beste zerbait adierazi nahi. Bere bizitzara jaiotzeko pertsonaren eragozpen au da —ta gure iritziz alde onek definitzen du proletargoa mixeri materialak baiño sakonago— kasik emakume oroen egoera, nahiz aberats ala pobre, burges, langille, nekazari" ... (2).

---

Emmanuel Mounier, bere "Manifiesto al servicio del Personalismo" liburuan. TAURUS (Barcelona, 1965).

JACQUES MARITAIN:

## “PAYSAN DE LA GARONNE”

r. irizar

“Urtez beteta bere eremitorioan erretiraturik bizi dan gizon batek, bera martxan jartzen alegindu denaren ondorioa ez konprenitzeak, ez gaitu arritu behar”.

François Biot.

Liburu hau ederra da benetan, bere izpiritu askatasun eta fedearren sakonagaitik, fede agerbide arrigarri bat biurtzen delarik”.

J. P. Dubois Dumée.

Toulouse-ko "Jesusen Anaitxoek" erretirotik, Garona ibai ertzean, Jacques Maritain gaurkotasunaren lehenengo orrialdera eraiki da bere azken liburua dela bide: "**Paysan de la Garonne**". Bi illabete buruan, 40.000 ale salduak. Arrapazka saldu ere. Gertaera honek aspaldi luzean mutu zegoen filosofo zaharraren abotsak esnatu duen interesaren esanai izugarria agertzen digu. "Laiko xahar bat, dio obraren titulo txikiak, egungo aldiak galdetzen da". Izpituaren testamentu eta alarma zantzu, liburu hau gizaldi erdiz gorako ausnar eta Egi serbitzuaren frutu eldua da. Aldi berean, eta gogor antxean, lehengoa baiño makurrago den "modernismo berri" bat salatzen du, Maritain-ek gaurko aldiaren ezaugarrietan somatu bide duena. Berebiziko oiarztuna izan du liburuak, batez ere Frantzi-ko aldizkari nagusienetan. F. Biot-entzat, Maritain-ek katoliko munduan duen ospe ta izenak eskatzen zuen, bere adiskideek ez zezaiotela utzi liburu hau argitaratzen, bestalde Maritain-en obra konsagratuari deus berririk ezarritzen ez diolarik. Jean de Fabrègues-entzat, oster, mundu guztiak irakurri behar luke obra hau, "izpituaren bazka eta animaren argi".

Beraz, saliatuko naiz gaurkoan liburu honen benetako esanaia sakontzen, XX-gn. mendeko fiura aundi baten azken arnasa delarik.

### Maritain gizona

Jacques Maritain, bere buruaz mintzo da, 1954-ean, bere "Carnet des notes"-en sarreran:

"Zer naiz ni neroni? Profesore bat? Ez dut uste. Beharrak eraginda erakutsi dut. Idazle bat? Baliteke. Filosofo? Horrela espero dut. Baiña, funtsean, justiziaren romantiku antzeko bat, batez ere... Lurrari bere belarrria ezartzen dioten ur-billatzaileen antzeko, iturri izkutuen otsa entzun eta izaki ezifnikusiak billatzeko. Eta, posibleki, baiña ere, kristau guztien antzera, mundu-gizon billakatu den zerutar eskale bat, mixeri, auleri eta erantzun gaberiko ainbeste graziren erdian".

Hona emen Maritain-en eta berak pentsaera katolikoan eta europearren gauditutako obraren argazki egia bat.

Europa-ko pentsamoldeak lur segurua behar zuen tinkotzeko,

Hegel-etik asi eta, positivismoa zear, vitalisten sistema eta Bergson-en (honen diszípulu ain zuzen Maritain) lur-axaleko pentsamenturaifio, bere burua birrintzen gainbera zetorfen filosofia oifarritzeko. Oifarriri krisis honetan, Maritain-ek kristau filosofian billatzen du ernegai edo legamia gizona eta filosofia bera indarberritzeko (S. Tomas-en eta Elizaren fedean, obeki esateko). Behar beharrezko da giza balore guztiak bere benetako jerarkian finkatzea: "Humanismo integral" bat, gizonak bere giza-muifia osoki edatu dezan, izpirituari eta Jaungoikoari begira.

Bestalde, Maritain-ek "laiko xahar"-tzat dauka bere burua. Bere bizi guztian temporalkizunean, problema politiku eta sozialetan buruz bera sartuta, egungo kristau demokrazia berrien izpirituzko guraso bezela da bera eta kristau dotrifia sozialaren pentsalari sakon eta aintzindarienetako bat.

Maritain XX-gn. mendeko gizona da, katolizismo berrikuntza-ren maixu eta profeta ukaezifizeko, mailla guztietan. Horregaitik esan diteke, eskuartze aundi izan duela izpirituen Kontzilliorako pres-taeran.

Maritain-ek 84 urte ditu egun. Ta maixu ospetsu eta miretsi hura, orain urte mordoska bat bere Anaidiaren epelean kontenplazioan gorderik, Elizaz mintzatu zaigu. Izan ere, zein bera baiifio egokiago itzegiteko? Hortik Maritain-en azken-agur liburuak merezi duen be-girunea. Zenbaitentzat, bere betiko postura kolokati eta kobardeen onartzea eta finkatzea besterik ez da; aldaketa batzuek sortu diote beldurra. Besteentzat, konprensiio gabeko agertu zaigu Maritain, eta egiatik zearka xamar dabil gaurko egoera aztertzean.

### Izpirituaren testamentu

Profeta mintzo da:

**"Benetako fede berria, funtsezko berrikuntza barne aldaketa bat izango da".**

"Paysan de la Garonne"-ek ez ditu arriskuak salatzen soillik. Era berean, eta honek garrantzi gehiago du, kristau bizitzak eta ekin-tzak ibilli behar dituen molde oifarrizkoak urratzen saiatzen da, Eban-jelioak eskatzen duenez. Ta hontan, Maritain-ek zintzo jokutzen du

bere buruarekin eta bere obra osoaren funtsezko oifarriekin. Emen entzuten da entzun ere bere abotsa beretasun eta esperientzi oiar-tzunez beteago.

Berrikuntza, dio, mundua eta bere problemak ezagutzeko bideetan; aldaketa intelektual lanetan, egi egarri sakonez; berrikuntza, fedea, otoitz eta kontenplazio bizitza at utzi gabe.

Barne aldaketan errepikatze honek ez du esan nai beretzat ifiolaz ere elkarrizketaren eta konpromisoaren ukatzerik. Prezixo da "mixe-riaren injustiziaz zapaldutako munduaren aurrerabidearen alde kon-sagratzea". Kristauak kristau izanez salbatzen du soilki mundua, bere bizitza "kristauki" eramanaz.

Munduaren gizatasun evoluziorako kooperazioa hontara egin behar da: gizonen lurreko itxaropena Ebanjelioagan ukatzen ez dalarik eta Kristoren eta bere Erreifuaren izpirituak munduko errealidadeak xuxperten dituelarik. Maritain-ek ez du baztertzen apostoladutza organizatua, baiñan, benetan funtsezkoa, egunero Ebanjelioa bizitzea dela adieraziaz. Ta, horretarako, Kristorekin bat eginda, munduaren erdian otoitz egiñaz biziaz.

**"Gure aldirako benetan, eta behar bada beharrezkoen, Jaungoikoarekin batasun bizitza eramatea da munduaren barnean, bere zalaparta, arrisku eta tenporalkizunen artean".**

Kristau langintza ain nekeza da guar munduan, dio Maritain-ek, ez dela posible izango deus lortzea sugar indartsu diran anima kon-tenplatiboak ez badira ugaritzen munduan zear.

Hau da Maritain-en bizitza argitzen duan misterioa. Ta ezin ukatu dezaiokegu errespetoa eta maitasuna "Jesusen Anaitxoek" Toulouse-n dituzten barrakatan bere bizitza pobretasunean eta kontenplazioan akabatzen ikusten dugun gizonari.

## **Alarma deia**

Ziurki, Maritain ezin klasifikatu dezakegu berak "Aliantza Sain-duaren ausnarlari" izendatzen dituanen artean, egia defenditzen du-telakoan lehenari ortzak eta guzti lotzen diren hoietan. Maritain-ek zoramenez jarraitu du Kontzilioa, eta bere egiten ditu haren izpiritu

eta ondorioak. Baiña, momentu berean, kilima eta beldurra sentitzen du Kontzilioaren erabakiak edatzeko orduan. Ta hau da liburu arrigarri honen beste aldea.

“Paysan de la Garonne”-ek, egillearen filosofiku izateari ez dagozkion gehiegikerietan erortzen delarik, zearo gaitziesten ditu, egiazko munduaren kristautze alegin hontan Kontzilio ondoreko Elizak bereganatu eta bere izpirituz kutsatu nai lituzken gaurko kulturaren ainbat agerkunde edo manifestazio. Bere Teilhard de Chardin-i buruzko azterketa, “gnosis pobre” bat, sinpletasun aundienaren seme baiño ez da. Bere Sikoanalisi eta fenomenologiaganako mexpretxua. Bere eskusibismoa Santo Tomas eta egiaren sentidua ia absolutuki berdintzean, XIII-gn. gizaldiz honuntz historiak filosofiari osakizun xehe batzuk baiño eskeifri ez balizkio bezela. Liturjiaren erreforman gertatzen ari diren esajerazio batzuk erreforma honen balorea eta beharra ukatuko balituzteke bezela, edo teologilari batzuen nabermenkeriek egungo teologiaren gaitzestea bailira. Nortzuk izan dire, ba, galdetzen du Congar-ek, Maritain-ek bere baietza eta ospea eskeintzen dizkion Kontzilioaren teologi lana aurrera eraman dutenak.

**“Maitatua eta errespetatua den laiko xahar baten egungo aldiari buruzko ikuspegi honek alderdiati agertzeko arriskua daukala iruditzen zait, gure aldiko bizitzaz esan gabe uzten duenagaitik”.**

Congar.

Egitan, Maritain-en alarma deia ez dagoela erabat errealdadetik at. Alabaifia ez dio zifnez erantzuten Elizaren gaurko egoerari, bere osotasun eta objetibutasunean. Ez da arritzeko, Maritain-en izpirituari, jokabide sakon eta garbikoa izaki, zenbait minorien estremismoak beldurgarri iruditzea. Baiña, gehiegikeri batzuk gertatu direlata, **modernismoa** aitatzea, eta egungo Eliza indarberritzen enpefiatzen diren beste guztien alegifia ez ezagutzea, justizigabekeri eta estukeria da,

**“kristau militanteak eta apaizak desesperaziora amildutzeko aifnako, honelako epaia Maritain-en izena daukan gizon batengandik datorrenean”.**

F. Biot.

“Nik nere aldetik ia egi billakatu den mito bat salatzen dut: aurrerakoan apaizek pekatuaz, gurutzeaz, otoitzaz, graziaz eta Jesukristoz mintzatuko ez direnaren mitoa. Hau esan beharrean arkitzen naiz, eta publikoki esan ere, adiskide maite, beldur bainaiz zure kontsejuak ez ote duten tamalez zuzendu dizkiezun haiek ez entzuteko arriskua eta bai, bestalde, zure alarma deiak ez ote dezakean finkatu izpiritu anitzetan egungo egoeraren ikuspegian ematen dezun alde mitiku hori”.

Congar.

Orain zenbait urte atzera, Charles Maurras-en “Frantzes ekintzak” klero aurreratiaren aurka burrukatzen zuen, eta “apaizgoa bere mixio sakratuaz ahaztuta” zegoela salatzen. Haiek sakristian gordeta egon zedin naiago zuten. Gaur, “apaiz berrien” slogana topiko billakatu da, kristautasuna beren maillako “privilegioen” defenza den sozial grupo reaktionario batzuen ezpaifietan. Honela saiatzen dira egiazki eta Ebanjelioaren garbitasunez gizarte obeago eta kristautasun konprometittuago bat lortu nairik leiatzen dan apaiz jenerazio berriaren lana neutralizatzen. Bestaldetik, hor daude katoliko konserbatzaillan grupoak, Ebanjelioaren eskabideen muñiaz kanpo, axaleko jokera eta aldiz joandako ekinza modu zenbait mantentzen amorratzen direnak.

Maritain ezin diteke sartu postura temoso hauetan. Alere, Congar-en oarra ongi dator “Paysan de la Garonne”-eri buruz. Izan ere, kleroa baida bereziki Maritain-en kezkaen xuria. Pablo-k Timoteo-ri emandako oar hura erasten dio egungo aldiari: “Etorriko da garai bat, askoek... belarriak egitik aldendurik, mitoetara biurtuko dituztena”. Maritain maixuetaz mintzo da (ez dira, ba, apaizak kristau erriaren maixu?), Jaungoikoaren Erreñuko eginbeharrak alde batera utziaz, munduaren aurrean belaunikatzen direnetaz, munduari bide ziur bat eman beharrean bere atzetik dijoaztenetaz. Egia “efikazia” pean ittutzen den dotriña berri hontan, Maritain-en eritziz, Jaungoikoaren Erreñuaren eta munduaren arteko bereiztasuna zearo ukatzaifio iristen da. Berak ikusten duanez, maixu berri hauentzat,



“munduak ez dauka zergatik goitik salbatua izan beharrik, ez-eta beste mundu berri bat, Jaungoikozkoa, izatera eldu beharrik”. Jaungoikoaren Erreñua inmanentziz dagokio munduari. Iru gauzatxo dira, Maritain-ek dionez, predikatze argi batek sekula aitatu behar ez dituenak: beste mundua, gurutzea eta santutasuna...

Zenbateraifloko objetibotasuna gordetzen dute eritzi hauek? Zenbat dire benetan, kristau eta apaizen artean, munduari dioten gehiegizko begirunez itxututa, mundu hau obeagotu bakarrik ez, baizik salbatu egin behar dela bereziki ahaztutzero iristen direnak? Eliza adiskidetu da munduarekin, eta munduan eta munduarekin eta munduagaitik bizi du bere salbazio mezua. Nola iritxi mundu hau egiazki salbatzera, Kristo berak bezela azkeneraiflo maitatu gabe. Bestalde, hau da egungo orduan Elizaren eta apaizen eginbehar eta buruauste nagusia: bere egiazko mixioaren kontzientziaz jabetu, salbaziozko mixio horretaz. Ze arrazoi eta ze pulamentu eduki dezake, beraz; “apaiz berrien” delako mitoak?

\* \* \*

*Elizaren santutasun atsa eta barne berritze giroa begiratzean —Konzilioa izan da honen frogarik argiena—, Maritain-en alarma deia, erabat alperrikakoa ez bada, behintzat errealdadez kanpoko gertatzen da, gaurko Elizaren funtsezko preokupazioekin naiko desakort. Guk naiago dugu Eliza barnetik indarberritzen ari den legami eta izpiritu berrian gure begiak kokatzea.*

*Eta, dena dela, baita ere gizon bat maitatu eta onartu, Jacques Maritain, bere bizitzaren akaberan, Egi leialtasunaren, Eliz serbitzuaren eta gizonenganako maitasunaren eredu.*

# GERNIKA-KO KANPOSANTUA...

**mari martija.**

*Lantxo honek ba du guretzat berezitasunik: emakume eskuz idatzirik dagola. Mari Martija dugu, hain zuzen, JAKIN-ek duen lehenen emakume-luma. Ongi etorria zaite.*

*Hamar urte luze joan dire emaztekoa JAKIN-en horrialdeetara iristeko. Aurrerantzean ez ahal zaitugu zu bakarririk izaneren. JAKIN "euskaraz gazteriaren" aldizkari da: gizon-ekoena eta emakumezkoena ere bai. Beraz, ongi etorriak Martija-rekin batera, JAKIN-en gaur edo biar idatziko duzuten euskal andereiño guztiak!*

Nik ez dakit zelan eta zer esan Gernika-ko kanposantuen ganean...

Gernika-n dogu, ba, Kanposantu ederra. Garbi ta polita izan be. Agintariak ardura aundia artzen dabe ondo eukitzeko ta aren jabola be gizon arteza da ta ortan aleginduten da. Jendeak beldur

itzela eukiten dautso areri tokiari. Niri, barriz, gogoko izaten zait bertan egotea. Orregaitik eskatu deustazu apurtxo bat idazteko? Baiña nik ez dakit euskeraz idazten... Gogokoa zait, aixe izango dodalako neure atzenengo etxea; baiña, batez be, eriotzaren gomutak on gozoa egiten dautsolako neure arimeari.

Noizik bein joaten naiz bertara, sartzen naiz barrura eta ixilik ibiltzen naiz baterik bestera. Begiratu eta alderdi guztietatik ikusten dodaz sepulturak. Olango batean egon gifian irurok alkarregaz, kanposantua ikusten. Zugaitzetatik orriak jausten, aixe fifia. Orduan, itzegiten asten dira ixilik dagozan illak be. Zein diferente izango litzaken gure bizitza barrero asi bageunke... Eta itundu egiten naiz. Artez gomutatzen naiz, orduan, Jesus'en itzagaz: **Ni naiz bizituera ta bizitza, nigan sinisten dauana, ilda badago be, biztu egingo da; eta nigan bizitzen eta sinisten dauana ez da sekula ilko.**

Urrundik ikusten dodanean kanposantu bat, beti egiten dot otoitz bertan ilda dagozanengaitik, eta salmistak difioenagaz gogoratuten naiz: "pasaien doazenak be ez dabe esaten: **Jaunaren bedeinkazioa zuengana, bedeinkatzen zaituegu Jaunaren izenean**". Eta bakarrik geratuten naiz, bakez.

Gerra denporan ikusi genduzan an gauza asko. Eta gauza negargarriak. Donostia-tik alde egindako lagun bategaz joaten nintzan, egunero frentetik ilda ekarten zituen gudariak ikusten. Bidean goiazela entzuten genduzan Kalamua-ko kaifioa otsa eta esaten genduan: gaur be ildako asko izango dira. *Eta esan eta izan. Joaten gifian kapillara ta an topetan genduzan gure gudari maiteak ilda. Batzuk egozan triskauta, beste batzuk gordin-gordin, bizirik egozala ziruditen. (...)* Makifia bat negar egiten genduan ikusirik arek mutil ederrak geiagoko barik ilda. (...) Besterik egin ezifik, otoitz bero bat egiten genduan euren alde.

Sarritan, ikusten dodazanean gaur mutil gazteak, areixek egunak gomutatzen dodaz eta gorputz guztiak zirkin egiten deust, pentsatuegaz, beste barik beste gudu batek danak garbituko leukezala.

Arelako egun batean ekarri eben ilda mutil gaztetxu bat, amazapi edo emezortzi urte inguruko bat. Gipuzkoa-ko zan. Bere anaia guduana ebillen eta berak be ez eban gutxiago izan gura eta danen ganetik joan zan zeozer egiten aberriaren alde. An il zan. Aren arrebak jakin ebenean (Gipuzkoa-tik alde eginda egozan) etorri ziran, eta a zan negargarri!... Zer dala-ta il zaitue?, esaten eutsen musuka eta laztanduz. Ta euren malkoekaz garbituten eutsen bere arpegi

odolez zikindua. Gero bere gorputza garbitu, jantzi San Frantziskoren abituagaz eta sartu eben atauetan. Eta illobiratu eben eta lorez apaindu, (gudarien leku berezian...). Danak ez eben olako suberterik euki...

Orain kanposantua azi ta barriztu egin dabe, ta geroago ta ederrago iminten aleginduten dira. Baifia guri etxakuz aztuten lengo lekuak...

## ... GERNIKA-KO KANPOSANTUA

Jose azurmendi

Azkenengo aldiz etorri nintzanean, euri ari zuen, euri landar xehe biguna. Gaur ez. Atea zabaldu ta nire aurrean, hillerri berriko zelaia, erdi-erdian monumentua tente duela, harrizko begirale. "...Reposen eternamente los restos de 163 españoles que ofrendaron gloriosamente sus vidas por Dios y por España en la Cruzada...". Victorio Orozco, Fernando Casimi, Mohamed Sin Tichia. 28: X. 32: Hebur Rauritz. 77: soldado X. Harrizko sua lau aldeetan, haizeak igitzen ez duen oroitzapen su gogorra. Zaudete pakean, gudu denak behin betiko ahazturik.

Beste ate bat, eta hillobiz betetako herritxoa. Familia de... Propiedad de... Honeraifio ekarri dugu jabetasuna. Jabetasunarekin,

diferentziak. Hilobi tristen parean panteoi bikaiñak, eskultura eder-  
rrak .Eta "vanidad de vanidades y todo lo de acá abajo no es  
más que vanidad", Etxegarai-tarrak gogoratuta. Heriotzak denok  
berdintzen gaituela esaten zen. Baiña hemen ez. Egur xahar batean  
irakurtzen dut: "Aquí yasen..." S-rekin, eta apal apal. Aruntzago:  
"Aquí esperan la resurrección y eterna vida los restos mortales del  
Excmo. Sr. D.... (Adorador Nocturno Honorario, Caballero de la  
Gran Cruz de San Silvestre, Ex Senador del Reino y ex Diputado a  
Cortes, etc.) **Pallida mors oequo pulsat pede pauperum tabernas  
regumque turres.**

Heriotza engaiñatu ote dugu? Ez. Behin berriro geure buruak  
engaiñatu ditugu. Beraz, zergatik harritu kanposantuan naturalta-  
sun haundienaz badabilta oilloak eta txitak? Lehenagoz etorri nin-  
tzanean asko miretsi nuen hau. Orduan, egin berria zegoen hilobi  
bat lurrean, eta lur atxurtuan oilloak zebiltzan mokoka. Bi pante-  
oietako gurutze arteko soka batetik esegita erropa mordo bat, legor-  
tzeko asmoz ipiñita noski. Ta euri ari zuen.

\* \* \*

Euskerazko bai gutxi batzuek. "Zren sendia". Panteoia iriki ta  
barrura begira, "ba dago denontzako lain toki", esan zuen nire la-  
guntzailleak. Bai, tokia hobe izango da. Ta halare ifioiz gertatu da  
hillobietatik barrukoak atera ta hillobiok salzea. Ta ez jabeak, kon-  
trarioak baizik.

Hemen dago Jon Arrospide, Jesukristo-ren irudi zuri marmolezkoa  
begirale duela. Han, kapera ezkerrean Etxegarai-tarren hillobia:  
Carmelo Echegaray, Bonifacio Echegaray. Ta, ezkerrera, Seber  
Altube. Aingeru esku harrizkoduna organoan "Abendu santu one-  
tan..." jotzen ari zaio, betiko loa gozatzen. "Jaubea. Altube-tar Se-  
ber". Bertsuok hillobi buruan:

"Jainkoak Adan-en bidez  
zigorkatu ginduzanez  
bizi izan zareen munduon  
pena asko ta poz eskasez.  
Zerua irabazi dozue, bai!  
nekaldi horren ordaiñez".

Eta Altube maixuari ez zaio falta Aresti ikasleak beldur zuena: Mármoles Guernica. La Vega.

\* \* \*

Etzetxoz betea dago zelai hau. Beste mundurako nahi genituzkean aterpeak, agian.

Bantuen ustez, Jaungoikoak Izadia oso ederki egin omen zuen, baiña, presaka zebillelako nunbait, punta batetik ez zuen bukatu, eta han zulo bat gelditu zitzaion. Nor lehenago, nor geroago, denok zulo honetatik jausten gera: ta zulo hau heriotza da. (Lufuluabo, Vers une theodicée bantoue). Bene-benetan berdinduko gaitu heriotzak, Jaungoikoaren altzoan. Arrazoa zuen ba gure Ayala-ko Kanzillerrak: "Gero heriotza dator, guztientzat berdiña".

Txikia nintzanean, galdetzen nion nire anaia zaharragoari (mutiko hura ere) zergatik egiten zituzten panteoiak. Eta haietan gorputza harrak jan gabe xehatzen zela, erantzun zidan. Baiña Shakespeare-k dio panteoi zoragarrietan ere ez dela harrik falta. Gure Xabin-ek esplikazioa behar zuen, ta hau asmatu. Baiña egiazko esplikazioa urtetan ta zorakerian asko azi gabe asmatu ezindakoa zen. Gizonok, ezpairik gabe, har zoroak janda daukagu burua, gorputza baiño lehenagotik.

Gure tontakeria azkengabea Goikoaren erruki azkengabeak zuzenduko al digu. Zuk, Jon Arrospide, aukeratu duzu ikur-hitza: "Ni sinistua ez bizi dana ez da betirako ilgo". Gure hazkar-tontoari ez baiño sinismenari begiratuagoaz salba gaitzala Jaunak, sinisteko nekea daramagun ezkeru.

*FEDEDUN*  
*eta*  
*FEDETZAILLE*

manex erdozaincy etchart

“Ez dira ez, eni: Jauna, Jauna, ari zaizkitanak zeruetako erresuman sartuko. Ene Aita zerukoaren nahia egiten duena bai, hura da zeruetako erresuman sartuko”  
(Mat., VII, 21).

**I.—GIZONAREN EZIN EGONA...**

Jainkoak gizona egin zuelarik bere iduriko, adimenez eta bihoitzez dohatua, ezarri zion bere ariman Berari buruz itzultzeko eta ibiltzeko gutizia. Hola ikasi dugu eta, guk fededunek, hola diogu! Egia erran, gizonak nahi du beti gizonago agertu, osoago, beteago, hedatuago, eta, ahal badu, bestelakatu, bere izaiteaz diona bilakatu.

Ezin egona du lotua gizonak bere barne gordean: hor asmatu-rik heltzen baitzako izan litakenaren alde berri bat, eta alde berri horren obratzeari lehiatzen baita. Eta beti berriz hasten da eta hasiko bere gizon izaitearen eskasa sendi dukeno: sekulan ez da gizondua, sekulan ez da osotua, betea eta hedatua. Helduko delako usteak derama: egun atzo bezala; bihar egun bezala. Ustea azkarrago da gizonaren altxatzeko eta hertsatzeko gertatzen zaizkon hutsegiteak baiño. Usteak hazten baitio adimendua, bihotza hunkitzen eta nahimena trebatzen. Bizkitartean bere ustean bakarrik fidatuz, amets lilluragarri-erietan gal litake. Pentsalari bezanbat ameslari izaiterat ekarria baita ezpala bada errealitateari ohartzen. Errealitateak, biziaren errealitateak diozka gogo-bihotzak frogatzen eta hezten, bere ahale- neurrian orhatzen.

Jakintzaren bitartez, gaurko gizona lehengoa baiño juntatuago kausitzen da izadiarekin: alde batetik kasik hezia bezala iduritzen zaiolaketoz eta bestaldetik ahal berriak idekiak zaizkolaketoz. Obra eder bat bururatu duen ofizialeari bezala, pintura berezi eta apartekoa berhexi duen artixtari bezala, bere alhorrean hazia sortzen ikusi duen laborariari bezala... bozkarioa dario gaurko gizonari bere jakintza- ren obra mirezgarriak aipatzean!

### ...ETA ARRANGURA

Eri bada gaurko gizona ez da lehengoa baiño eriago. Ez dut uste eri den, bakarrik izan litake arranguratuagoa den erlijione sendimena bestelakoa duelaketoz. Gizonak beti bere baitan sendi du Jainkoaren gutzia, eta ezpala badu nahi ere onartu edo gutzia horri ihes egiterat bere bizi osoan entseatzen balin bada, halere gizon denaz gain beti ber arrangurak derama: Jainko arrangurak. Aladere, handitu arau, gizonak frogatzen baitu bere izaitearen izaria, eta ezpala eskapatzen ahal bere baitan sortzen zaizkon kestioneri nolazpeit eta doi bat ihardetsi gabe. Kestione horiek ukatzen dituelarik erre- postu bat emaiten diote: ez dituela begiratu nahi, ikertu nahi... beldurrak hartzen baitu egiaren ezagutzeak. Sekulan egia ezagutzen balu, bere izaiteaz egia ezagutzen balu... behar bailuke errotik kanbiatu bere bizitzeko moldea. Eta gizonak ez du maite bere bi- bitzko moldeen kanbiatzea! Nahi du bere bizi goxoki iragan. Ardu- ra ikusten dena da gizona bere situazionean inztalatzen: bere etxea, bere egoitza ederki apaintzen du barnez eta kanpoz; bere lana segur-



tatzen; etxen ere doi bat goxotasun eta aijetasun ezartzen ditu bere mendeak eskaintzen diozkan moienak baliatuz. Gizona inztalatzen da betikotz lur huntan bizi behar balu bezala eta lur huntako goxotasun loeriak hartzen du! Bainan noiztenka berriz gogoratzen zaizko bere barneko munduan gizon guzien barneko mundua inketatzen eta inarosten dituzten kestioneak: zendako den mundu huntan, zer ari den, norat doan mundua, zertaratuko gaituzten jakintsunen asmatze espartagarriek?... Eta mundua iluntzen dituzten gertakerien berri ere jakiten du kaseta, radio, telebixtaren medioz: mundu zabalean bizi den jende xumeenak ba daki Viet-Nam'en zer pasatzen den eta han ari den gerlak nolako hirriskuan ezartzen duen mundu zabala, mundu guzia inarros, hunki, xeha edo berdin suntsi lezaken gerla deitoragarri baten hirriskuan! Gizon xumeenaren izpiritua ari da beti "traolian", erran nahi dut bere izpirituan erabiltzen, inguratzen, berhexten eta berriz biltzen dituela berari gertatzen zaizkonak eta munduko gertakariak. Gizona ari da beti traolian, aldiz noiztenka pentsaketa! Beharba ez behar luken bezala, erran nahi dut gauzak, gertakariak pizatzuz beren neurrian... Halere gertatzen zaio bere barnearen barnatasunean sartzea: zer gisaz den lur huntan; norat doan norapeit bultatua balin bada; zer den biziaren helburua? Ibilki ditake errepostuketa eta mintza ditzazkenak berdin bera bezain ixil eta arranguratuak aurki ditzazke! Eta hola ibilki da ardurenik. Alta bere barne barnatasunean ager baleza Jainkoak ezarri dion Fede izpia, beste argi bat atera lezake! Bainan ardurenik gizonak ez daki bere barneko eremuetan sartzen eta egoiten. Laster eneazten da funtsezko barnatze lan hortan! Fedea gorderik dutenek ez dezakete aije errepostu xuxenik ardiets beren baitan sortu kestioneri. Alta ez da dudarik gutan dugula parte gure kestioneri argi ekar lezaken errepostua. Nolaz bestelan Egiaren bila ibilki gintazke ez baginu gu baitan egia- ren egiteko ahala? Eta ez ote gira egiten, norbait agertzen gu baitan bildu dugun Egiaren arabera eta neurrian? Egiaren bila ibilki gireno, erran nezake beti sortzen ari girela, bildu Egiak girenetik beti bestelakutzen gaituelakotz. Gizona bestelakatzeko alde hortan ez ote da ageri Jainkoa hor delako señailea? Gu baitan segi dezakegun bestelakatzeko moimendu hortan bada Jainkoa, nolaz ote ez dio gizonak hobeki behatzen? Nolaz ez dio emaiten bere onarmena? Eta emaiten dutenek ere ez dute Egia oso-oso biltzen ahal, Egia osoa eta guzia Jainkoa bera baita, eta lur huntan goatzino ezpaitugu Jainkoa oso- osorik gauza bat bezala guretzen ahal. Bakarrrik Fedeak dauku onararazten Jainkoan dagola Egia oso-oso eta guzia, eta Jainkoari

buruz, daukan Egiaren bila abiatuz eta ibiliz, dugulá errepostu bat hatzemanen aintzina joan arau gure bizian sortzen zaizkigun kes-tioneri. Fedeak Jainkoari buruz gaitu itzultzen eta beti bultatzen Beraren hobeki ezagutzerat. Zeren Jainkoa hobeki ezagutuz gure bu-rua baitugu hobeki ezagutuko, Jainkoaren argia jautsiko baitzauku edo hobeki, emana izanen baitzauku.

## II.—GIZONAREN BETIKO BORROKA...

Beren baitan senditu Jainko gutziari jarraikitzen direneri, beren baitan alha duten Jainko arrangura handitzerat uzten duteneri.... Jainkoak bere argia emaiten diote: Fedearen argia. Bainan gizona ekarria da Jainko gutzia horren itotzerat, Jainko arrangura horren hiltzerat. Urguluak hartzen du askotan gizona. Uste du berez zerbaít dela: bere gorputzean odola bero dueno, osagarri onean deno, adi-mendua kapable dueno ikasten artzeko eta bere asmatzeen obretan frogatzeko...., gizona ekarria da mundu erdi-erdian jaun eta nausi agertzerat. Eta hori bere heineko munduan: bere etxaldearen erdian, bere familiakoen artean, bere herritarren artean! Bere buruaz har-tua den jendeak ba du halako xut aire bat: nahi du ikusia izan, nahi du ezagutua izan, ohoratua, nahi du denek aitor dezaten jende kapa-blia dela eta bere aferak ederki kudeatzen dituela. Hola-hola ba dira gizonen artean milaka Jainkoaren aintzinean agertzen direnak: aitortuz goraki ez dutela Jainkoaren beharrik bizitzeko, ez dutela Jainkoaren beharrik beren aferetan erreusitzeko! Gizona ekarria da Jainkoaren baztertzat, urgulu zozo batek itsuturik. Ba zuten xut aire bat Jesus'ek kondenatu zituen Farisauk! Jainkoari eder egin nahi zuten ustez-eta Jainkoa enganatuko zuten! Jainkoak ba daki gizonaren bihotzaren berri, erabiltzen dituen gogoeta gordeenak ikus-ten dituelakotz, hazten dituen sendimenduak ba dazkielakotz nolakoak diren. Jainkoa ez dezakegu engana. Orroit gaiten nola zituen urgu-luak galdu gure lehen burrasoak: nahi ukan zuten Jainkoaren ordain jarri lurraren ganean, Jainkoaren lekua hartu munduko harat-huna-tetan, beren gisa apailatzeko mundu hetsi eta tinki bat. Urguluak zituen galdu gure lehen burrasoak. Orai ere urguluak gaitu galtzen, suntsitzen, Jainkoa bazterrerat utzirik, guhaun gisa bizi girelarik, guhaun gisa gure heineko mundu hetsi eta tinki batean.

## ...ETA FEDEAREN ARGIA

Deus onik ez dauku ekartzen Jainko gutiziaren itotzeak, Jainko arranguraren hiltzeak. Aldiz Jainko gutiziar segitzen girelarik, eta Jainko arrangura hazten dugularik, gira handitzen, gizontzen, Jainkoak berak baigitu orduan laguntzen, egiten eta osotzen. Fedearen argiak Jainkoa ezagutarazten daukulakotz, ezagutarazten ere dauku gure izaitea: nor giren eta norat goatzin. Ezagutarazten dauku Jainkoa gure bizian ezartzen, gure bizi xumean, gure urrats guzietan bezala gure pentsaketa eta sendimendu guzietan.

Gure lehen burrasoen urguluak galdu balin bagitu, orroit gaiten Jesus'en umiltasunak gaituela salbatu. Gure eskasiaren ezagutzeko, gure ahulezien konprenitzeko eta jakiteko zer gisaz giren bekatuan bizitzerat ekarriak, behar gira itzuli gure lehen burrasoeri buruz. Aldiz jakiteko nola osotzen ahal giren, nola gure buruaz jabetzen ahal, nola gure jite onaren arabera handitzen ahal, nola gure bizia ereman zorion egiazkoaren gozatzeko, hots nola salbatuak izaiten ahal giren, behar gira baitezpada Jesus'i buruz itzuli. Jesus igorria izan baita guri buruz mundu hetsi hunen idekitzeko, mundu tinki hunen laxatzeko, eta gutarik bakotzatik gizon berri baten egiteko: Jainkoaren haur salbatua, erran nahi baita Jainko Aitaren Erresuman parte hartzeko gai. Jesus umil-umila agertzen zauku bere bizitze guzian: sortzetik hiltzeraino, bere solasetan eta bere obretan. Bere umiltasunean Jesus'ek ezagutarazten dauku Jainkoa ez duela gizonak ordaintzen ahal: Jainkoa da gauza guzien Egilea, Jainkoarena da mundu osoa, eta Jainkoarena delakotz Berak eman dio munduari duen ordena. Jesus'ek ezagutarazten ere dauku gure lekua: gure lekua da xerbitxari batena lur huntan. Ez Jainkoaren esklabo mundu hunen erabiltzeko. Baina Jainkoaren xerbitzari, mundu huntan Haren goresteko eta mundua ederturik Berari eskaintzeko. Jesus'ek egin zuen bezala.

Jesus'ek ainitz aldiz erraiten dauku, Ebanjelioak dionaz: "Ez naiz lur huntarat etorri ene nahiaren egiteko, baina ene zeruko Aitaren nahia". Jesus'ek beti hori ukan du gogoan: bere zeruko Aitaren nahia ahalik hobekienik betetzea. Eta ba dakigu Jesus'ek etzezakeela bestela egin. Mundu hunen salbatzea eta beraz idekitzea, laxatzea, berritzea, gizona barneraino bere graziaz saildatuz.

Guretzat Jesus egin da obedient hiltzeraino, kurutzean hiltzeraino. Bere Aitaren xerbitxari leial agertu da Jesus: gu salbatzeko bere bizia kurutzean emaiteraino. Alta biziari atxikia zitaken Jesus, gu

guziak atxikiak giren bezala! Bizia: izaiten ahal dugun ontasunik handiena eta bizkitartean askok hoin gutiesten dutena! Alde batetik beti gal beldurrez gabiltza eta bestaldetik guhau faltaz nola ez dugu phiruz-phiru desegiten! Ez dugu maite bizia! Jesus'ek phiruz-phiru obratu du bizia. Etzuen bizia gal beldurrik. Jesus'ek maite zuen bizia: eskaini eta eman du gure bizia phiruz-phiru obratzeko! Hain handia zen Jainko Aitaren xedea eta bururaino Jesus'ek bete du bere Aitaren nahia. Ez esklabo bat bezala! Zeren esklaboak ez du eginbiderik baizik: bere nausiaren menpean bizi da, nausiak nahi duenaren egiterat bortxatua. Esklaboak ez du norbait izaiteko dretxorik! Ez da norbait bezala ezagutua eta hartua. Jesus'ek aldiz hautatzen du bere Aitaren nahia, eta hautu hortan erakusterak emaiten dauku bere libertatea. Zeren libertatea ezpaita nahi denaren egitea nahi den gisan eta nolana hika. Libertatea da gure gizon izaiteari doakion ibil-moldea hautatzea. Jesus'ek bere izan eta ibil-moldeaz erakusterat emaiten dauku osoki hautatzen duela bere izaiteari doakion ibil-moldea: Jainko Aitaren nahia betetzea, hola baitzauku egiazki agertzen Jainko Aitaren egiazko seme, eta hola baitzauku erakusten nolakoa izan behar duen gure ibil-moldeak gure gizon izaitearen osotzeko. Jainko Aitaren xedea zen bere semearen igortzea munduaren salbatzeko. Eta ez dio bere semeari bide ordoki eta lurreko bizitze goxo bat eskaini: bainan bide gogor bat eta bizitze dorpe bat! Jesus'ek ez du inztalatzeko hirriskurik ezagutu: bere etxeñoa, bere etxaldea, bere familia ttipia... Garratza izan da Jesus'ek lur huntan bete izan duen mixioea: lehenik bere bizitze ixilean erakustea lanaren balioa eta handitasuna; familiako batasuna eta ekartzen duen zoriona... Gero bere lurraldean predikatzen ibiltzea, dizipuluak egitea, apostoluak hautatzea eta moldatzea bere Elizaren eraikitzeko. Eta azkenik Pasiona sofritzea eta bere bizia kurutzean emaita. Pazkoz piztu zen hiletarik eta zombait asteren buruan igan bere Aitaren ondoan jartzeko.

Filipe'k, Natanael kausitu zuenean bere bidean, erran zion: "Mois'ek bere legean eta profetek aipatu duten gizona aurkitu dugu: Josepe'n seme Jesus Nazaretarra". Natanael'ek ihardoki zion: "Nazaret hortatik atera ditakea deus onik?". Filipe'k beretik: "Haugi eta ikusak!" (Joanes, I, 45-46). Gaurko gizonak Natanael'en eite ba du: ez du laket itzuli-mitzuli ibiltzea! Aipatzen diotena nahi du bere beharrez entzun eta bere begiez ikusi, bereziki erlijioneko zeretan. Beharbada noizbait zerbait entzun duke aipatzen Mois eta bere legez, profeten zuhurtziaz! Urrunetik heldu zaizkon mintzo hauk ez

ditu aije hautemaiten! Hobeki aditzen duzke Marx, Freud, Mao, Sartre, Lévy-Strauss, eta bertze...! Haize zirimolak ostoa alde guzietarat derabiltzan bezala larrazkenean, ideia berri eta gizalurrean erakitu erlijione zaharrek derabilate gaurko gizona eta daukate halako duda-muda batean. "Nazaret hortarik atera ditakea deus onik?" zion Natanael'ek. Beren duda-mudan, askok gaur diote: "Kristo'ren Eliza hortarik atera ditakea deus onik?". Jesus etzen lotsatu Natanael aditzean! Nehork etzuen uste phikondo baten pean Natanael bezalako gizon bat zagola! Bakarrik Jesus'ek jadanik zuen ikusia eta ezagutua! Phikondoak oraino ba dira eta ere... Natanael bezala pentsaketa ari direnak, beren lan-artetik, beren burua dutela bakarrik lekuko! Ikusiak eta ezagutuak ote dira? Entzuten ote dute konprenitzeko hizkuntza batean: "Zatozte eta ikus-zazue?". Gizonak maite duke egun ere phikondoaren itzala, baina ez ote zaio hobeki heltzen bideko lagun baten mintzoa?

Jesus agertzen zauku bere bizi guzian bere Aitareen xerbitxari umila bezala. Erakusterat emaiten dauku Jainkoaren nahia egun guzietan dela beti gehixago eta hobeki ezagutzen. Baina hortakotz gure aldetik behar gira entseatu Jainkoaren nahi horren ezagutzerat. Jesus'i bezala, umil izaiterat lehiatzen balin bagira, Jainkoak ezagutaraziko dauku bere nahia. Zeren urgulutsueri Jainkoa ezpaita mintzatzen. Jainkoa ixiltzen da bihotz gogor agertzen zaizkoneri. Jainkoak maite ditu bihotz umilak, erran nahi baita bihotza beti idekirik atxikitzen diotenak, Idekia eta ez hetsia. Ezta eta ez gogorra: "Izan zaitezte bihotzez umil eta ezti".

Izan: ba da hitz huntan moimendu bat, girenetik ateratzen gaituena, sekulan ez girelaketz osotasunerat helduak. Ez dakigularik xuxen zer den gizonaren osotasuna, ez dugulaketz erraiten osoki eginak girela, helduak girela, bizkitartean gu baitan suma dezakegu beti izaiterat barnetik altxatzen gaituen indar hori. Bere eskuetarik ateratu obra luzaz begista dezakeela, bere buruaz (denaz) gizonak ez dezake deus holakorik! Izan: olde ideki bat eta mugarik gabea, bakarrik gizona higiarazten duena, hil artino jazarrik atxikitzen! Eta berdin gizartea osotasunerat deraman oldea! Kristo'ren soa gizonari buruz, gizarteari buruz, etzen deus onik etzitakeela atera gizonatik, gizartetik, erran nahi zuen so bat! Jesus'ek ba zakien onetik ba duela gizonak, ba duela gizarteak. Ez du Jesus'ek erran Natanael'i: "Zutarik atera ditakea deus onik?" Baina aldiz: "Filipe'k deitu aintzin ikusi zaitut phikondo baten pean zinaudela". Ez du Jesus'ek erran Israel populuari: "Zutarik atera ditakea deus onik?"

Bainan aldiz: "Abraham'ek deitu aintzin ikusi zaitut lurraldean eta beste populuen artetik berhexi". Ez du Jesus'ek erran gizadiari: "Zutarik atera ditakea deus onik?" Bainan aldiz: "Lurreko buruzagi, errege eta aintzindariak zatikatu aintzin, ikusia eta maitatua zindutan; filosofoek eta jakintsunek argitu aintzin argitua zindutan". Jesus'en soak gizona eta gizartea hartzen ditu beren baitan daukaten onean. Jesus'ek sinetsi du gizona baitan, eta bere bizia eman du giza-diarentzat balio zitakelakoan. Jesus'ek irakasten dauku gizona baitan dukegun esperantxa sekulan ez galtzen: gaurko gizona baitan sines-terat hertsatzen gaitu! Bere duda-mudekin, bere kestioneekin, bere arrangurekin, bere ezin-egonarekin, ba du gaurko gizonak erroetarik ateratu landarearen eite: ez ote zaizko enbor zaharretik erro berriak sortzen ari?

(Segida gero: III.—FEDEA LEGEARI KOROPILATZEN DELARIK...)

---

### 1967'ko arpide-saria

---

Datorren zenbakiarekin etapa berri bat hasten du JAKIN-ek, 1967'an 5 zenbaki eskuratuko dituzu.

Hau dela-ta, arpide-saria pittin bat altxa beharrean arkitzen gera: lehen 75 pezeta zana, **orain 100 pezeta izango da urteko ordaifia.**

Usarioa dugun bezela, "reembolsoz" kobratuko dugu arpide-saria, arpidedunen aldetik eragozpen berezirik ez bazaigu agertzen.

# "AXMUTIL" JAUNARI NERE AZKEN-HITZA

aldapeko

Honen aurreko erantzupena egin nizunean, ez nekien nor zindudan. Orain, bai, ba-dakit zure nortasunaren berri, ene adiskide lehial batek zure albisteak eman baitzizkidan, eta zabal-zabal eman, gero. Lehen, zure deitura ederraren hotsera, besterik uste zindudan, baiñan, ene adiskidearen bitartez zure alderdi ezkutua ezagutu dut, alegia, eztabaidazalearena. Beraz, ez naduka zertan harriturik "JAKIN"-en egiten didazun bigarren diosalak.

Azken-aurreko "JAKIN"-en, 21'garrenean, alegia, zure erantzupena ikusi ez nuenean, uste nuen ixillets! zenduela, eta nerebiziko lasaialdia hartu nuen, ustez, hauzi gogaikarri huntan behin betiko bakea izanen nuela; baiñan, 22'garrenak nere lozorro gozotik esnatu nau eta berriro ere gudu-zelaira ertetzen behartu. Jaungoikoa'ren izenean azkenekoa izango ahal da! Zuk beñepein agindu didazu zurea azken-hitza dela eta nik ere halaber agintzen dizut. Baiñan, oraingoz

erantzun beharra daukat, ixil-gose ba'naiz ere, ikusten baitut mutu egotea ezteela posible zure bigarren idazlana irakurrita gero. Batetik, gauzak behar ez luketen eran nahasten dituzulako eta bestetik, zure eraso berriez edo zahar-berrituez nere burua defenditzeko eskubidean nagoelako. Eta besterik gabe goazen arira.

Lenengo: Iduritzen zait, zeu zerala nere iskribuak oker irakurtzen dituzuna, eta ez alderantziz. Nik ezpainuen ifun baiesten **-tzaz** (?) edo **-etzaz** atzizkiak XIX'garren mendean asmatuak direnik. Baiñan, hots!, aurrena, **-tzaz** (?) eta **-etzaz** atzizkiak alkarrengandik bereizten ikasi behar duzu, zeren, **-tzaz** (?), sasi-atzizkia izenei eran-txirik dijoanean (Horregatik ipintzen diot sasi-ezaungarria), egiazki, zinki eta benetan XIX'garren mende azkenetan edo XX'garrenaren hasieran asmatua baita. Egia esan, eztaikit nork asmatu zuen, Arana-Goiri'tar Sabin'ek ala bere ikasleek. Ez ninduke batere harrituko, alabaita, marka guziak jo ta hautsi zituen "Euzkeltzale-Bazkauna"-ren asmaketa izatea.

Nere idazlantxoan hauxen nion soilki **-etzaz** atzizkiak: "Uste dut (1), gure Mitxelena jakintsuari entzun niola esaten, **-etzaz** atzizkia ez dela Zuberoa'ko testu zaharretan arkitzen, alegia, joan den mende hasieratikoa-edo dugula" (2). Zuk diozunez, ordea, Ligi'ko Martin Maister'en "Jesuskristen Imitazionia" (1757) ezkeroz agertzen da, eta honek esan nahi du, zalantzarik gabe, lehenagotik ere zabaldua zegoela. Seguru aski, hontan, ezta Mitxelena jaunarena izango hutsa, nereaz baizik. Hark, XVIII'gn. mendea ezkeroz esango zidan eta neri XIX'garrena esan zidan ustea galditu buruan. Baiñan honek eztizu ajolarik, ezpaitaukat batere eragozpenik **-etzaz** (plurala) zuberotar atzizki jatorizat aitortzeko, beronen sasikotasuna demostratzen ez den bitartean.

Baiñan, behin eta berriz esango dizut, ez derizkiotela bidezko, **-etzaz** bazter-euskalkiak (Zuberoa'koa baita soilki), jatorria izanarren ere, **-ez** atzizki nagusia (Naparroa Garaikoa, Beherekoa eta Laphurdi'koa) eta literatur tradizio aberatsekoa baztertzeo eskubidea edukitzea.

Zuk Laphurdi'kotzat jotzen duzun **-etzaz** atzizkia, berriz, uste dut tratadista batzuek bakarrik erabillia izan dela, ni befiepein enaiz gogoratzen literaturan ikusi dudarik. Lecluse da horietako bat,

(1) Ohar zaitetz, "uste dut" diodala, baiespernik egiteke.

(2) "joan den mende hasieratikoa-edo dugula". Lerropetitako esaera polit horrek ere eztizu baiespern beterik egiten. "Dugula"-k baiiezkoatasun osoa agertzen du. "Edo dugula"-k oster, gutxi-gora-beherazkoa. Beraz, ezta, muga itxi-itxi bat jartzen XIX'garren mende asieran.



gizon-az singularrean eta gizon-etaz pluralean darabilena. Duvoisin'ek, singularrean -az, denek bezala, eta pluralean bi eratan: sem-etaz eta seme-ez, baiñan bere literatur eskributan uste dut beti -ez darabillela. Darrigol'ek eta Bonaparte'k -az, singularrean eta -ez, pluralean. Larra-mendi'k,-az edo -arenzaz (Jainkoaz-Jainkoarenzaz) singularrean eta -enzaz (Jaunenzaz) pluralean. Gaur, Andoaingo seme argiaren-arenzaz eta -enzaz (1) atzizkiak sasiko-etsirik daude. Gipuzkoa'n behintzat, uste dut, denbora ezagunetan singularrerako eta pluralerako (Otxoa-Arin eta Mendiburu ez beste denak, baiñan azken honek, Oiartzuarra zenez, napar-mintzaira obeto zerabilen) beti -az erabili izan dela.

Arrazoi duzu Tartas Zuberotar eredutzat hartzekoa ez dela diozuean. Nik idazle hau, gehienak bezala (denboraren faltaz) behin bakarrik irakurri nuen aspaldi zaharrean eta ahazturik nongoen Arue'ko Erretoraren asmoa euskera ahalik eta alkartuenean idaztea zela. Halaz ere, ba-ditu Zuberoa'ko partikularismuak, baiñan gerta zitekean -etzaz (sortu-berri edo sortu zahar) aldi hartan bizirik egotea eta honela izanik, zentzu haundi batez, euskeraren batasunerako partikularismu kaltegarri bezala baztertu zuen.

Ondoren diozu: "Ba-dakusazu, beraz, -tzaz edo -etzaz atzizki horrek ba-duela osaba onik eta garbirik gure klasikoetan; ez duela kirastua deitza merezi".

Huntaz esan behar dizut berriz: eztela jokabide lehiala -tzaz sasi-atzizkia -etzaz atzizki jatorrarekin (edo jator antzekoarekin behintzat) otar batean sartuta hontzat eman nahi izatea. Perretxiku honak otar batera eta txarrak bestera. Izan ere, Jainkoak libra gaitzala, asmoz eta jakitez, honen artean edendunak sartzetik!

Beraz, -etzaz, orain artean bezala, Zuberotar euskalkian erabilteko geldi bedi soil-soilki, ezpaitu eskubiderik euskera alkartuan edo beste euskalkietan -ez atzizki nagusiagoari tokirik kentzeko, eta -tzaz (nahiz singular esangurarekin, nahiz plural esangurarekin, bietara erabiltzen baitute gaurko idazle askok) sasirako, ezpaita beste iflorako hon.

"Amasei seme Euskalerriko" izenburuarekin ere, lengo lepotik duzu burua, dakusadanez. Eta egia esan, benetan harritzen nau. Areago: txunditurik uzten nauzu. Zergaitik? Horratx: Izenburu horri eraso dioten etsai asko sortu zaizkit bazterretan, baiñan denak "gaurko euskaldunak", alegia, gure denbora joanetatik zearo etenda bizi diren

---

(1) Eztakit hutsegitez den ala ez, baiñan, nik daukadan "El Imposible Vendido"-ren edizifioak -arenzas eta -enzas dakar.

euskaldunak, gure aurretik euskerarik izan ezpa'litz bezala, atzokorik ezagutu eta aintzakotzat hartu nahi gabe, gaurkoarekin soil-soilki noiz-nahiko euskera juzgatzeo eskubidean daudela uste dutenak. Baifian zu etzitugu hauetakoa, gure literatur klasikoaren ezagutzaille sakona baizik eta honetxegatik ezin uler dezaket nola egin dizaioken min zure belarriari "Amasei seme Euskalerriko" tituluak.

Ni neu, ohartu nintzen, zuk salatu baiño lehen, ipiñi nituen adigarri guziak pertsona izenenak zirela, baiñan momentuz, ez meukan besterik eskuartean eta aski iritzi nion nere erakuspidea egiteko; ziur nintzen, ordea, bestelakoak ere zenbait tokitan irakurririk nintzela eta geroztik, billatzen jardun gabe, banaka batzuek idoro ditut han-hemenka. Jakifia, adigarri hauetatik eztago palaka arkitzerik, lehenago esan nizun bezala, joskera legeari kontrakoa billatuz osatutako kontraste zoragarri horietakoak baitira. Baiñan, ene ustez, hortara jarrita, haztarrika lanera alegia, elitzake beste munduko lana dozena bat edo dozena pare bat adigarri biltzea.

Hona hemen nik jasotakoak: Oihenarten "Atsotitzak", esaera zahar bilduma zoragarrian hauetxek arkitzen dira:

**"Koseillu kaparpeko, ager daite azkeneko"**. Joskera normalean honela litzake: "Kaparpeko koseillua, ager daite azkenean". Gipuzkeraz: "Sasipeko sekretua, ager diteke azkenean", hots, sasi-barruan ezkutaturik dagoen ahopekua edo ixilpekua, noizpait ager ditekeala. (Bildumako 109'garren atsotitza).

Hona, orain, "Amasei Seme Euskalerriko"-rekin izugarria berdintzen dena, "seme" hitz berberaz baliatzen baita: **"Hi arraza handiko, ni seme iauregiko, egur hori nork drauku hautsiko?"** (231'gn. atsotitza).

Orain beste bat -a mugatzaillea erantxirik: **"Marteillu zillarrezkoak, hauts detzake ate burdinazkoak"**. (314'gn. atsotitza).

Eta bukatzeo, liburu baten izena, nik baiño lehenago beste norbaitek eder-etsi baitzuen eginkizun honarako. Ideki zazu, otoi, Villasanten "Historia de la Literatura Vasca", 112'garren horrialdean eta bertan irakur dezakezu 1734'garren urtean, Pabe'n, izen honekiko (nahiz ta egille izenik gabekoa) liburu bat argitaratu zela: **"Othoitze eta Kantika Espiritualak Zubero Herriko"**. Honek ere ene liburuarekin ezin dezake senidetan haundiagorik eduki, nik "Euskalerriko" diodan tokian, honek "Zubero Herriko" baitio.

Beraz, ikusiak ikusirik, esaerok euskera jatorra baldin ba'dira, nere "Amasei seme Euskalerriko" ere euskera jatorra da eta arrazoi mardul honetxegatik, aurrerakoan nere liburu-tituluari eraso nahi

baldin ba'diozu, lehenago, gure arbaso zaharretatik datozkigun min-  
tzaira-molde lilluragarri horiek gudukatu eta irauli beharko dituzu.

Hauxen da guztia, eta nere partez hauz hau amaitua geldi bedi  
sekulako.

---

## hutsegite zuzentzea

---

“Axmutil’i erantzun-agiria” tituludun iskribuan

(Jakin’en 20’gn. zenbakian, 1965’gn. urtean, 28’gn.  
horrialdetik 33’garrenera)

29’gn. horr., azken errenka:

-taz, dakar; -etaz, zuzendu.

30’gn. horr., eskubi-aldean, goian:

**Ba-dirudi gure aldean Sabindarrek-alegia, Arana-Goiri-  
ren euskal-eskolakoak eta hauen inguru-marian...**

Honela zuzendu: **Ba-dirudi gure aldean Sabindarrek  
—alegia, Arana-Goiri’ren euskal eskolakoek— eta hauen  
inguru-marian...**

30’gn. horr., eskubian, 17’gn. lerroan:

gaizki zuten?, dakar; gaizki jaso zuten, zuzendu.

30’gn. horr., eskubian, 25’gn. errenkan:

**berriketarik, dakar; berrikeriarik, zuzendu.**

30-31’gn. horr.: “besamotzak” dakar; “besamotza”, zuzendu.

31’gn. horr., ezkerrean, behe-aldean:

**indartuenak, dakar; indartsuenak, zuzendu.**

33’gn. horr., eskubian, 12’gn. lerroan:

**hotan, dakar; hontan, zuzendu.**

31’gn. horr., ezkerrean behe-aldean:

**berritzaleek dakar; berrizaleek, zuzendu.**